

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 5a / 664. zenbakia

apirile 30/04

10-T

Atxikipenen eta konturako sarreraren ziurtagiria.
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
Lan etekinak, ekonomia jardueren etekinak eta bestelako etekinak

Ekitaldia:

Atxikipenaren eta konturako sarreraren ziurtagiria.
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
Lan etekinak, ekonomia jardueren etekinak eta bestelako etekinak

10-T

LAN ETEKINAK

1	2	3	4
Zenbatutasun balaztasun	Atxikipenak Kontur. sarrizak		
1	2	3	4

100EKO INTEGRAZIOA

5	6	7	8	9	10
Dituzko ordainketak	Lanbide	Ekintza	Osak	Ukako	Telaketa
11	12	13	14	15	16

100ETIK BEHERAKO INTEGRAZIOA

17	18	19	20	21	22
Osatu edo gabe dituzko ordainketak	Integrazio %	Zenbatutasun balaztasun	Atxikipenak Kontur. sarrizak		
23	24	25	26	27	28

ORDAINKETA SALBUETSIAK

29	30	31	32	33	34
Bida gutxiestenak dituzko eta diru estelagintza					
35	36	37	38	39	40

GASTU KENGARRIAK

41	42	43	44	45	46
Guzuzen, Sigurantzaren, Inbentarioaren deribaziozko murrizketak, ezab					
47	48	49	50	51	52

ONARRI EZARGARRI OROKORREN MURRIZKETA

53	54	55	56	57	58
Lanbidearen epearen (ICM)en, Puntu Planen eta Aurrerapenerako Mutuak					
59	60	61	62	63	64

EKONOMIA JARDUEREN ETEKINAK

65	66	67	68	69	70
Lanbide profesionalen dituzko edo gurean bidetako ordainketak					
71	72	73	74	75	76

BESTELAKO ETEKINAK

77	78	79	80	81	82
Bazkide kooperatibistak					
83	84	85	86	87	88

SARIAK (Joku, lehiaketa, zuzketa edo konbinazio aleatorioak)

89	90	91	92	93	94
Dituzko sarrizak					
95	96	97	98	99	100

Leku eta data:

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ
HORREN ALDEKO KANPAINA BULTZATZEN DABILTZA

ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/8 • KULTURA: MAIATZEAN, EKINTZA UGARI/14


Telleria Baserriko Jaia

arrasate-mondragón

Keramikagileen

Topaketa

- zeramika erakusketak
- umeentzako tailerrak
- bideo emanaldia
- laba eraikuntza
- raku gava...



maiatzak




6-7-8

eta 9

-Antolatzen du:



-Babesleak:



KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu liburutegixen liburue hartzeko pagau egin biher izetiei?



ERIK MARTIN
Langillie

Neuk txarto ikusten dot, liburutegixe leku publikue dalako eta liburuek hartzie debalde izen biherko leuelako; azken baten, herritar-rondako zerbitzu bat ofrezduten daue-eta.



CARLA BELTRAN DE GUEVARA
Langabie

Neuri ez jat ondo pentsetan, liburutegixe Udalana dalako, eta leku publikue izenda bertako gauzak kobretie txarto ikusten dot. Udal zerbitzu bat da, eta horrek debalde izen biherko leuke.



PILI SAGASTA
Langillie

Neuk txarto ikusten dot. Gaiñera, liburu bat hartzeko bi euro pagetie larregikue dala uste dot, diru asko da hori. Eta, zenbat egunerako izengo zan, 15 egunien leiduteko?




JON MARTIKORENA
Ikaslie

Liburuek hartzeko pagau egin biher izetie txarto ikusten dot, horrek ez dau irakurlie bape motibetan. Lehen be ez geuen askorik leiduten, eta oin pagau egin biher badogu...



JUAN MANUEL HERNANDEZ
Ikaslie

Erabaki txarra da hori, jentiek lehen baiño gutxiau leiduko dau-eta. Gaiñera, liburutegixek ez dittugu badanon inpuestuekin pagetan? Ez dot uste erabaki ona danik.



NARCISO IGLESIAS
Langillie

Ez dakit ba! Azken baten, ikusi egin biherko litzake diru horrekin ze egitten dauen. Diru hori liburu gehixau atarateko bada, ondo; baiñe, bateronbat aberasteko bada, txarto.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK DESAGERTUTAKO ITURRIA Arimazubi eta Munar inguruko bizilagun batzuek zera eman digute aditzera: orain dela bizpahiru urte, Santa Barbara parkearen alboan zegoen iturri bat kendu egin zutela, lan batzuk egiteko. Lanak aspaldi bukatu zituzten, baina ez dute iturria berriro ipini. Hango inguruko bizilagunei eta zehazki inguruetakó gaztetxoei zerbitzu handia ematen zien iturriak, eta haren premia dute.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

Uribesalgo, hobera

Utillajes Uribesalgo enpresaren egoerak hobera egin du, datozen bi urteetarako lana aurkitu dutelako.

KIROLA /12

Sorospen ikastaroa

Ekain hasieran egingo dute mendiko medikuntza eta sorospen ikastaroa Eginon.

KULTURA/13

Casino elkarteak

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute Casino elkarteak Iturriotz kalean, arazoak konpondu ostean.

ASTEKODATUA

145

BAZKIDE DITU GAUR EGUN CASINO ELKARTEAK

Casino elkarteak egoitza zaharra saldu behar izan zuen eta berria erosi. Zaharra saldu aurretik elkarteak 240 bat bazkide zituen. Gaur egun, berriz, 145 ditu. Gustura daude bazkideak.

BESTEKEESANA

“ Eusko Jaurlaritzako Kirol Sailak proiektu berri bat prestatu du eta, inongo txosten edo azterketa berezi

barik, xakea kanpoan laga du. Euskadiko Xake Federazioko ordezkariak bilera luzea izan zuten Eli Altuberekin eta Jose Ramon Garairekin, eta guztiz etsita irten ziren bileratik. Herrialde askotan garbi daukate xakea kirola dela, eta Nazioarteko Olinpiar Batzordeak ere kirol gisa du xakea. Baina Eusko Jaurlaritzak ez, haientzat ez da kirola. Egun batetik bestera erabaki dute xakea jolasa dela, partxisa bezalakoa dela eta gainera hamar eguneko epea eman digute egiazta-zeko xakea kirola dela. Alderantziz izan beharko litzateke: eurek egiaztatu beharko lukete xakea kirola ez dela”

JOSU TORNAY
‘BERRIA’/04-04-23

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



Bakarrik

Gaurkoan ez nuke irakurlea apertu nahi, sarritan egin dezakedanaren sentsazioak irentsita. Gaurkoan irakurlea gogoetan aritzea gurako nuke, jardutea, ikustea, pentsatzea...

Ez dakit sekula esan dizudan hiri batean bizi naizela. Bai, hiri handi batean. Gure herritxoaren alboan itzela, zaratsua, esango nuke hamar handiz handiagoa edo. Tira, edo behintzat populazioari dagokionean hamabost aldiz handiagoa izango da. Eta azkenaldian bakardadearen inguruan jardun naiz gogoetan, hiriaren zurrunbiloan nahasten diren sentimenduetan, eromenean. Gauero kutzazainaren epelean lo egiten duen eskalea, bizilagunaren lorontzian bakarrik dagoen lorea, makilatxoarekin lagunduta paseoan dabilen agurea, atzerriko emakume beltzararen ibilera... bakardadearen irudiz josten da eguna hirian.

Gure herriaren alboan, bakarrik dago hiria. Edo are bakar-tuago behintzat. Bakarrik, noraezean dabilenik ere badago eta gurean.

Une batez, bakarrik egotera baztertu naiz pisuko logelara. Pisukideen berotasunetik ihes eginda, hiriko lagunien irri eta oihuetatik alboratuta, herriko lagun eta txokoen oroitzapenetik aldentuta... Bakardadean gogoetek oihartzun handiagoa egiten dutela pentsatu dut. Edo hori otu zait, bakarrik dagoenak hitzak urrutitik entzuten baititu”

Memorian dantzan ari diren berbak astunagoak dira eta aurpegiak ilunak, txikitako oroitzapenak grisak eta argazkiak zuri-beltzekoak.

Nahastu zaizkit bakardadean. Eta sentimenduek estali dute nire gogoeta; herrimina, preso dauden herrikoideen argazkiak, lagunak, etxekoak, ez daudenak, aspaldi ikusi barikoak, zu agian... hitzak urrunetik entzuten dira... zu ere bakarrik ote?

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Galnazarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 30**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- ZAPATUA, 1**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- DOMEKA, 2**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 3**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- MARTITZENA, 4**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 5**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUENA, 6**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 7**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZTA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretriatuen egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05
- MEZAK**
- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

SAN ANDRESKO JAIK
Gaurtik, egubakoitza, hasita, domekara arte -biak barne- San Andres auzoko jaiak ospatuko dituzte. Gaur, egubakoitza, etxafuegoak, buruhandiak eta dantzaldia izango dira. Bihar, zapatua, umeen parkea, txaranga, txokolate-jana, bonba japoniarrak eta dantzaldia egingo dituzte. Eta etzi, domeka, herri kirolak eta disko festa egingo dituzte.

'EUSKARAZ BIZITZKO'
Gaurko, egubakoitza, presoek euskaraz bizitzeko eskubidea izan dezaten kontzentrazioa deitu du Arrasateko Etxerat taldeak. 19:30ean, Herriko Plazan.

EROSKIREN BERBALDIK
Eroski Fundazioak hainbat berbaldi antolatu ditu. Martitzenean, Fermin Barcelok Arartekoaren gainean berba egingo du. Eta eguaztenean, Aitor Beldarrainek banku-maileguak izango ditu berbagai. Biak Monterronen izango dira, 16:30ean.

'INDARKERARIK EZ'
Astelehenerako, maiatzak 3, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra kontzentrazioa deitu du Emakume Kontseiluak. 19:30ean izango da, Herriko Plazan.

AEDrenAGENDA

HERRI URRATSERA
Maiatzaren 9an, Herri Urrats egingo dute. Debagunek autobusa antolatu du. Garibain geldituko da, 08:20an. Eman izena maiatzaren 6a baino lehenago AEDn.

ARRASATE-OÑATI LASTERKETA
Maiatzaren 8an, Arrasate-Oñati lasterketa egingo dute. Eman izena Sportlanden lehenbailehen.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Roneon merkataritza etxea egin gura zuten

Zigorrolako Roneoren lantegi zaharra bota gura zuten, eta orube horretan merkataritza etxe handi bat eraiki. Altzari, etxetresna elektriko, oinetako denda eta antzekoak ipini gura zituzten, baita jatetxeak eta aparkaleku ugari ere. Herriko merkatariei lehenasuna eman gura zieten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zurrutero"



Edale ona.
— Zurruteru majua eindda dago.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ospitaleko larrialdi zerbitzuaren gainean

Aste honetan Iñaki Agirianorenkin izan gara, Eskualde Ospitaleko larrialdietarako arduradunarekin. Larrialdien zerbitzua sailkatzeko sistema berria ipini dute ospitalean, eta horren gaineko azalpenak eman dizkigu. Zapatu eta domekan berriro eskainiko dugu elkarrizketa hori, beste hainbatekin batera. Amaia Diaz de Monasterioguren dieta adituarekin, esate baterako, alkatxofaren gainean egin dugu berba, alkatxofa oso elikagai osasungarria da-eta.

Triatloiairen gaineko elkarrizketa

Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldeko ordezkariekin izango gara astelehen goizean. Ekainaren 5ean izango da ibarrean triatloi proba, eta ibilbidea zein izango den aurreratuko digute antolatzaileek. Kirolaren gainean astelehenero dugun tartean egingo dugu elkarrizketa hori. Martitzenean, bestalde, Andoni Aizpuru aurkezleari egindako elkarrizketa eskainiko dugu, 19:15ean. Goiena Telebistan orain dela gutxi egindako elkarrizketa errepikatuko dugu irratian.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 25	3 °C
MAXIMOA Astelehena, 26	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	34,3 L
	Max, Min, Euria
Eguaztena, 21	23 °C 10 °C 15,6 l/m²
Eguena, 22	15 °C 10 °C 1,5 l/m²
Egubakoitza, 23	16 °C 10 °C - l/m²
Zapatua, 24	20 °C 5 °C - l/m²
Domeka, 25	22 °C 3 °C - l/m²
Astelehena, 26	24 °C 3 °C - l/m²
Martitzena, 27	20 °C 5 °C 17,2 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Sabina Igartua, Xabier Zumalde El Cabra-ren emaztea; Larraitz Sasieta (EHNE) eta German Arbulu (abeltzaina), Zubillagako hiltegiak; Iñaki Agiriano, medikua...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: elemerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizekoaren errepikapena
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**
19:10 Iluntzean Andoni Aizpuru
- EGUENA**
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Liburutegietan aldarrikapen eguna

Egubakoitza liburuaren nazioarteko eguna izan zen, eta hainbat aldarrikapen egiteko aprobetxatu zuten egun hori. Europako Batasunak gura du liburutegietako erabiltzaileek mailleguan hartzen dituzten liburuengatik ordaindu behar izatea, eta jendea ez dago horrekin konforme.

Liburuen nazioarteko eguna zela aprobetxatuz, beste hainbat lekutan moduan, liburutegietako arduradunek erabaki hori salatu egin gura izan zuten. Beraien esanetan, oso kaltegarria izango da orain arte doakoa izan den zerbitzua aurrerantzean ordaindu behar izatea.

Berbaldi arrakastatsua

Emakume Txokoak antolatuta, bularreko minbiziaren gaineko berbaldia izan zen eguaztenean, eta sekulako arrakasta izan zuen, gainera. Emakume asko hurbildu ziren Emakume Txokora, gai horrekin interesatuta, eta berbaldia egiteko egoitza txiki geratu zitzaion. Azkeneko momentuan gora eta behera ibili ziren beste leku aproposago bat topatzeko asotan, eta azkenean San Frantzisko Xabier ikastolako aretoan egin zuten. Lourdes Aitziturri medikua izan zen hizlaria, eta minbiziaren prebentzioaren gainean egin zuen berba.

Eguenean, auto istripua Epelen

Eguen arratsaldean auto istripua izan zen Epelen. Zorionez istripua ez zen larria izan, baina bost auto izan ziren kaltetuak. Arratsaldeko 13:30ak aldera bost autok elkar jo zuten, eta itxuraz istripu handia izan bazen ere, ez zen zauritu larririk egon.

Istripuaren ondorioz emakume bat eta gizonezko bat Eskualde Ospitalera eraman zituzten zauri arinekin. Istripuak ez zuen eragin handirik izan zirkulazioan, Ertzaintzak ez zuen eta Epeleko errepedea itxi behar izan.



AEDk egubakoitzean banatu zituen sariak

Aurten 17 urte egin dituzte AED Literatur Lehiaketek, eta eguenean banatu zituzten sariak, Monterronen. Ipuin, poesia, bertso paper eta komiki arloetan hainbat lanen artean aukeratu behar izan zuten epaimahaikideek; eta aurten ere ez ei da erraza izan lan onenak aukeratzea.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Europara begira

Ez dakit dagoeneko dena erabakita dagoen edo ez, baina Estrasburgo-ko auzitegiak eman duen epaiak Itoizko Koordinakundearen eta (gutxienez) nafar askoren animuei kolpe latza eman die. Auzitegi horrek babesa eman dio Nafarroako gobernuak egindako Naturguneen Legeari. Horren arabera, Nafarroako gobernuak Itoizko urtegia egiteko

oztopo txikiagoak izango ditu, horiek izatekotan.

Espainiako Estatuan daukaguna, eta batez ere izan duguna ikusita, euskaldunok Europara begiratzeko ohitura handia daukagu. Hemengo, etxeko, bidegabekeriak han konpondu edo konpontzen lagun diezaguten. Beti ez da horrela izaten, eta horrela denean dagokionak jaramon txikia egiten

dio. Saiatzeak ez du kalte egiten, ezta?

Orain beste herrialde batzuetako hiritarrak bezalaxe, euskaldun asko Europara begira daude, ekainean egingo diren hauteskundeak, hain zuzen ere. Horien artean, hamaika eta bat zailtasun izandako herritar multzo batek Herriarren Zerrenda izeneko hautagai-zerrenda aurkeztu gura du, eta sinadurak batzen hasi da. Lana, hemen eta European.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

AZKENEKO HAUTESKUNDEETATIK IRTEN BERRI, BESTE BATZUK DITUGU ATARIAN

Oraingo astean, Udalak errolda begiratzeko dei egin du, eta horretarako udaletxe azpian ohiko panelak ipini ditu. Bada, asteburuan bukatuko da horretarako epea. Irudi horrek bat baino gehiago harritu egin du: "Hauteskundeak datoz berriro?". Bai, hala da. Oraindik Espainiako Estatuko hauteskundeak

zurrunbiloa eta emaitzak ez ditugu osorik irentsi, eta badatoz beste batzuk. Ekainaren 13an, Europako parlamenturako hauteskundeak egingo dituzte, eta 2005ean, lehendakaria aukeratzeko dagozkionak. Edozein aspertzeko eta gogaitzeko moduko sasoiak izango dela dirudi. //B.

LORAK

BELEN MAIZTEGI

Teleordainketa
24 orduko zerbitzua

Biteri etorbidea 13
ARRASATE
Tel.: 943 08 15 44

LORAK

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALET

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA/ Arrasateko Euskalgintzak errenta aitortpena euskaraz egitea bultzatu gura du

Errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera asko ematen dituzte gaur egun

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Euskalgintzak, Plan Estrategikoaren baitan, euskararen erabilera bultzatzen dihardu. Hala, errenta aitortpena euskaraz egiteko dauden aukerak ezagutzera eman eta herritarrek Ogasunarekin harremanak euskaraz egitera gonbidatu gura ditu.

Arrasateko Euskalgintzak Plan Estrategikoaren baitan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko hainbat helburu zehaztu zituen. Beste gauza askoren artean, errenta aitortpena euskaraz egitea bultzatu gura du eta aurretik, bigarren aldiz, kanpaina horri heldu dio. Euskalgintzak herritarrei aditzera eman gura die errenta aitortpena euskaraz egin dezaketela. Are gehiago, dagoeneko zabalik dago errenta aitortpena egiteko epea: apirilaren 26an zabaldu zen eta ekainaren 25era arte iraungo du.

BANKETXE ETA KUTXEK, AUKERA EMAN

Arrasatearrek Bergarako Ogasun Bulegora —eskualdekora— jotzen dute, baina gura izanez gero, aitortpena banketxe edo aurrezki kutxetan egin dezakete.

2003an, Arrasateko Euskalgintza herriko hainbat banketxe eta aurrezki kutxarekin harremanetan jarri zen, bezeroei aukera emateko, gura izanez gero, errenta aitortpena euskaraz egin dezaten. Hainbat aurrezki kutxa eta banketxek ekimen horrekin bat egin zuten, eta bezeroak aitortpena euskaraz egiteko gailu guztiak bermatzen dituzte.

Arrasaten dauden bederatzi banketxe eta aurrezki kutxetatik lauk —Banco Guipuzcoano, La Caixa, Gipuzkoako Kutxa eta Eus-

kadiko Kutxa— eskaintzen dute euskarazko zerbitzu hori. Aipatu beharra dago horietako batzuek hainbat urte daramatzatela zerbitzu hori euskaraz eskaintzen; izan ere, batzuk Gu Be Bai hitzarmenaren barruan ere badaude.


POLIKI-POLIKI, KOPURUA GORANTZ

Arrasateko Euskalgintzak dituen datuen arabera, errenta aitortpena euskaraz egiten duen lagun kopurua gorantz doa. 2001ean, 275 lagunek egin zuten aukeraketa hori; 2002an, 223 lagunek; eta 2003an, 349k.

Arrasateko banketxe eta aurrezki kutxetako arduradunen esanetan, aitortpena euskaraz egitea aukeratzen duten gehienak gazteak dira. “Zaharragoek gura go izaten dute diru kontuak gaztelaraz egin”. Hala ere, aurrezki kutxetako arduradunek onartu dute aitortpena euskaraz egiteak ez daukala inolako zailtasunik: “Azken baten, lau kontzeptu eta kopuru besterik ez da. Gainera, kopuru horiek beti leku berean joaten dira. Izan ere, hizkuntza arazoa baino gehiago, ohitura kontua da”.

Euskalgintzako ordezkarien esanetan, behin errenta aitortpena euskaraz egiteko dauden aukerak jakinda, herritarrek animatzea besterik ez da falta. “Kontzientziatu behar dugu zenbat eta zerbitzu gehiago euskaraz eskatu, orduan eta eskaintza euskaldunagoa izango dugula”.

Are gehiago, Euskalgintzaren esanetan, “kopurua hazten dabilen arren, askoz gehiago haz daiteke, aukera hori ezagutzera eman hasi besterik ez garelako egin. Aitortpena egitea oso sinplea eta erraza da, inolako esfortzurik eta burukominik ematen ez duena,



Poliki-poliki, gero eta lagun gehiagok egiten dute errenta aitortpena euskaraz.

Zailtasunagatik baino gehiago, ohitura eta utzikeriagatik egiten da gaztelaraz

eta ia gura duen edonork egin dezakeena”.

Euskalgintzaren baitan eta inguruan dabilten lagunak

Errenta aitortpena egiterakoan, beti kopuru eta kontzeptu berak dira kontuan hartzekoak

azken bi urteotan hasi dira errenta aitortpena euskaraz egiteko aukeraz baliatzen. Beraz, Euskalgintzako kideek uste dute jen-

Lau banketxetan eta hainbat aholkularitzatan zerbitzua euskaraz ematen dute

dea apur bat kontzientziatzen bada, kopurua askoz gehiago haz daitekeela, ohitura kontua besterik ez delako.

OSKAR ELIZBURU/ARRASATEKO EUSKALGINTZAKO KIDEA

Noiz hasi zineten errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina bultzatzen?

2003an hasi ginen. Plan Estrategikoan adostu genuen euskaldunok ditugun aukeraz baliatu behar dugula. Hala, aukerak izan arren, ia ez ditugu erabiltzen. Banku eta aurrezki kutxekin berba egin genuen bezeroei errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera dutela gogoratzeke. Baiezkoa eman ziguten, eta lanean dabilta. Beste kanpaina batzuk ere bultzatzen gabiltza.

Zer-nolako erantzuna jaso duzue?

Emaitzak dezente hobetu dira, baina oraindik askoz gehiago hobetu behar dute. Egia esanda, ez da zaila hobetzea, oso kopuru txikiekin hasi ginelako. Euskalgintzaren inguruan lanean gabiltzanok bakarrik kontzientzia hartuta, kopurua asko igotzen dabil.

Ohitura kontua da ala arrasatearrei oso arrotza egiten zaie halako paperak euskaraz egitea?

Egia esanda, ez dago ia ohiturarik. Batzuek halako gauzak beti gaztelaraz egiten dituzte, gaztelaraz ikasi dutelako. Baina utzikeria kontua da. Errenta aitortpena euskaraz egiteak ez dauka inolako zailtasunik. Ez du esfortzurik eskatzen, oso erraza da, ez da inolako ikastarorik egin behar, eta euskararen aldeko pauso garrantzitsua da. Ikasketak euskaraz egin dituztenak eredu garrantzitsua izan daitezke.

Errenta aitortpena euskaraz egiten dutenei, Aldundiak diruz lagundu behar lieke?

Ziur gure kanpainak baino eragin handiagoa izango lukeela. Ez legoke gaizki aitortpenarekin euskal erakundeak diruz laguntzeko aukera izatea.

JUNE URTZELAI/GIPUZKOAKO KUTXAKO LANGILEA

Zuen zerbitzuak errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera ematen du? Noiztik?

Bai, Gipuzkoako Kutxak errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera ematen du. Azkeneko bost urteotan, behintzat, aukera hori eskaintzen dugu. Guk hainbat bezerori aukera hori dutela gogoratzen diegu. Aukera eskaini ostean, bezeroak du azkeneko hitza; euskaraz edo gaztelaraz egitea. Oraindik proportzioan kopurua txikia den arren, gero eta lagun gehiagok eskatzen dute errenta aitortpena euskaraz egitea.

Hainbat euskaldunek errenta aitortpena gaztelaraz egiten dute. Aitortpena euskaraz egitea zailagoa ala arrotzagoa da?

Egia esatearren, errenta aitortpena euskaraz egitea ez da zaila, gaztelaraz egitea bezala da. Ohitura kontua dela

uste dugu. Kontua da lagun asko ez dutela ohituta zenbaki kontuak euskaraz egiten, baina ez dauka zailtasunik. Lau kontzeptu argi izan behar dira, besterik ez. Izan ere, euskaraz zein gaztelaraz zenbaki kopuruak leku berean joaten dira, eta ez dago galtzerik. Zoritzaierrez, termino horiek euskaraz apur bat arrotzak dira, hori da kontua.

Gazteak dira aitortpena euskaraz egiten duten gehienak?

Bai, igartzen da gazte askok ikasketak guztiak edo gehienak euskaraz egiten dituztela, eta aukeraketa egiterakoan argiago dute euskaraz egitea.

Aitortpena euskaraz egiten dutenei, Aldundiak diruz lagundu behar lieke?

Ez dut uste hori denik bidea, baina ziur eraginkorra izango litzatekeela. Kontzientziatu egin beharko genuke.

Utillajes Uribesalgon datozen bi urteotarako lana lortu dute

UBANE MADERA


Badirudi Utillajes Uribesalgok Arrasaten duen lantegiko langileen egoerak onera egin duela zelanbait. Langileen batzordeko ordezkariak jakinarazi digunez, datozen bi urteotarako hitzarmena sinatu dute enpresarekin, orain, lana izatea lortu dute-eta.

Apurtxo bat baretu da Utillajes Uribesalgo lantegiaren egoera. Langileen batzordeko ordezkari Antton Axpek jakinarazi digunez, datozen bi urteotarako lana lortu dute Arrasateko lantegirako. Gauzak horrela, langileek bi urteotarako hitzarmena adostu dute enpresarekin.

LANGILE GUTXIAGO

Hori bai, era berean jakinarazi digute orain zazpi langile gutxiago direla Arrasateko lantegian. Langileen ordezkariak kontatu digu zazpi langileok Gasteizera joan direla; hiru euren kabuz. Beste lauren kasuan, berriz, ordezkapena egiteko kontratua zuten eta enpresak esan zien Arrasateko lana laster bukatuko zitzaizela. Hala, Gasteizen lekua eskaini eta hara joan ziren langileok. Edozelan ere, enpresak, kalte-ordain moduan, 10.000 euro eta Arrasatekoa baino soldata hobe eskaini die langileei.

Horren harira, Antton Axpek zera esan digu: "Langileen artean sakabanaketa egiten dabil-



Datozen bi urteotarako lana lortu dute Arrasateko lantegian.

tza". Izan ere, Utillajes Uribesalgoko Arrasateko lantegian 70 langile baino gehiago zebiltzan lanean; gaur egun, berriz, 54 bat geratzen dira, aurre-erretiratuak barne. Hala, hasierako 70 haie-tatik, besteak beste, 18 kalera bota zituzten. Orain, lehen baino langile gutxiago direla-eta, lantegiak datozen bi urteotarako lortu duen lanari aurre egiteko, enpresak abuztuan langileei lanera joateko eskatu diela esan digu Antton Axpek.

PRODUKZIOA GASTEIZERA

Dena dela, eta nahiz eta orain lana izan, Utillajes Uribesalgoko langileek ez dute horren argi ikusten Arrasateko lantegiaren etorkizuna: "Bi urteotako lana bukatzen denean ikusi behar zer gertatzen den". Izan ere, orain dela hilabete batzuk enpresak jakinarazi zien euren asmoa dela Arrasateko produkzioa Gasteizera eramatea. Horrenbestez, Arrasateko lantegiaren etorkizuna kolokan geratu zen.



Hemendik joandakoek ekitaldia egin zuten Bapaumeko kartzelaren kanpoaldean.

Euskal Herritik urrunen dauden kartzeletara bisita

U.M.

Arazo barik joan eta itzuli ziren autobusak Euskal Herritik urrunen dauden kartzelak bisitatzen. Arrasateko hamar lagunek parte hartu zuen ekimenean. Frantziako Bapaumeko kartzelara joan ziren.

Gipuzkoatik, Nafarroatik eta Iparraldetik sei autobus joan ziren Bapaumeko kartzelara. Bizkaitik eta Arabatik, berriz, lau autobus Algecirasera joan ziren. Izan ere, bi kartzela horiek dira Euskal Herritik urrunen daudenak.

Hala, arrasatearrak Bapaumera joan ziren. Euskal Herritik 1.100 kilometro baino gehiagora dago kartzela hura, eta euskal preso bat dago han. Arrasatearren autobusa Bergaratik atera zen egubakoitz arratsaldean, eta zapatu eguerdian iritsi zen Frantziara. Kartzela bistan zutela, txalaparta jo zuten eta bertsoak bota zituzten.

Baita etxafuegoak ere. Modu horretan, barrukoak ohartarazi zituzten hantxe zeudela. Era berean, besteak beste, Jokin Etxeberrria preso ohiak euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko idatzia irakurri zuen. Arratsaldea hantxe pasa eta gero, biharamuneko 08:00etan iritsi ziren arrasatearrak etxera.

HIZKUNTZA ERASOAK

Bestalde, Arrasateko Etxerat elkarteak bidalitako ohar batean salatu dute euskal presoek kontrako hizkuntza erasoak izan direla azkenaldian: euskaraz ikastea debekatu egin diete, telefonoz euskaraz berba egiteko dituzten eragozpenak gero eta handiagoak dira eta euskaraz bidalitako gutunak-eta sarri ez zaizkie heltzen, eta heltzen zaizkien atzerapenarekin heltzen zaizkie. Hala, hori salatzeke, besteak beste, kale agerraldia izango da gaur, egubakoitza, 19:30ean, Herriko Plazan.

Lantokietako baldintza prekariorak salatzeke ekimenak Arrasaten

U.M.

Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguna izan zen eguaztenez. Hala, gainerako herrietan moduan, Arrasaten ere ordu erdiko geldiuena deitu zuten sindikatuek. ELAko ordezkariak egindako balorazioaren arabera, langileen %85ek bat egin zuten protestarekin.

Arrasaten, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek deitu zuten protesta ekitaldia. Berez, 09:00etatik 09:30era egin behar zen; baina jakinarazi digute enpresa askok euren beharren arabera egokitu zutela ordu erdiko protestaren ordutegia. Kontuak kontu, lehen aipatutako sindikatuek ordezkariak duten lantegietan, langileen %85ek bat egin zuten geldiuenearekin. Hala, sindikatuek protestaren gaineko balorazio positiboa egin dute.

Era berean, gaiarekin lotuta, zenbait gaztek lan-istripuen



Zenbait gaztek lan-istripuen ondorioak irudikatu zituzten Seber Altube plazan.

ondorioak irudikatu zituzten Seber Altuben. Duina taldeak ere bat egin zuen ekimenarekin.

MAIATZAREN 1A

Bestalde, bihar, zapatua, Langileen Nazioarteko Eguna dela-eta,

LAB, ELA, EHNE eta STEE-EILAS sindikatuek Bilbon izango den manifestazioan parte hartzeke dei egin zuten. 11:00etan atarako da manifestazioa, Jesusen Bihotza plazatik, *Langileak eta herria burujabe* leloarekin.

LABUR

Emakumeen kontrako erasoak salatzeke kale agerraldia izango da astelehenean

Emakumeen aurkako indarkeriarik ez! lelopean, Arrasateko Emakume Kontseiluak kale agerraldia deitu du datorren maiatzaren 3rako, astelehena. Protesta ekitaldia 19:30ean izango da, Herriko Plazan. Emakume Kontseiluak herritar guztiak gonbidatu ditu ekimenean parte hartzeke: "Gure gizartean, egunero, hainbat eta hainbat emakumek jasaten dituzten tratu txarrei aurre egiteko ekimen horretan parte hartzeke dei egiten dugu". Horren harira, zoritxarrez, oraingo astean bertan emakume bat hil du bikoteki-deak halako eraso baten ostean.

Herriaren gaineko argazki zaharrak eskuratu gura ditu Arrasateko Udalak

Arrasateko Udalak Arrasateren gaineko argazkiak batu nahi ditu. Edozein motatako argazkiak gura ditu: herritarrak agertzen direnak, jaien gainekoak, paisaienak... Hori bai, antzinako argazkiak izan daitezkeen gura dute. Gai horrekin arduratzen den Andoni de Bedialauneta zinegotziak esan digunez, gutxienez, orain dela 40 urteko argazkiak izan behar dute. Halakoren bat duenari eskatu diote argazkia udaletxera eramateko. Han, momentuan bertan eskaneatuko dute eta berriro ere jabeari itzuliko diote. Laster jakinaraziko digute zein den lan horren helburua.

OSOKO BILKURA/ Apirilari dagokion ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak

Garaia Berrikuntza Guneko lanak hasteko lurrak eskuratzea besterik ez da falta

UBANE MADERA

Gai guztiak onartu zituzten zinegotziek asteleheneko ohiko osoko bilkuran. Hori bai, zenbait gaik eztabaida piztu zuten; esaterako, Uribarrin etxebizitzak egiteko dagoen proiektuak. Ezker Batuak babes ofizialeko etxe gehiago eskatu zituen.

Itzultzailea bajaran zegoela-eta, asteleheneko ohiko batzarrean gazte-lera izan zuten nagusi zinegotziek. Arrazoi berarengatik hasi zen apurtxo bat berandu batzarra. Kontuak kontu, aztertu zituzten zerrendan aurreikusitako gai guztiak, eta gainera, guztiak onartu zituzten, haietako asko aho batez.

GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

Adibidez, Garaia Berrikuntza Gunearekin lotutako zazpi puntu aztertu zituzten zinegotziek. Guztiak ere Garaia eraiki ahal izateko desjabetu beharreko lurzorua-rekin lotuta. Hala, jakinarazi zuten zenbait herritarrek idatziak aurkeztu dituztela gai horrekin lotuta. Horietariko batzuek diote euren lurzorua ez dituztela behar bezala neurtu, eta dagozkienak baino metro koadro gutxiago kontabilitzatu dituztela. Era berean, besteak beste, diote ez daudela ados lurrak desjabetze prozeduraren bitartez lortzearekin.

Udalak erantzun die, besteak beste, lurzorua neurketa sistema digitalarekin neurtu dituztela. Edozelan ere, lurjabeak uste badu lurzorua ez dutela ondo neurtu, orain-

Lurrak eskuratu eta gero, datorren hilean hasiko dituzte Garaia eraikitze lanak


Udalak 15 eguneko epea du lurjabeekin adostasuna lortzeko; bestela, desjabetu egingo dituzte

txe erakutsi beharko duela hori. Desjabetze prozesuaren gainean, berriz, Udalak dio horixe dela Arrasateko Egitamua Orokorrean onartutako sistema.

Hala, jakinarazi zuten orain Udalak 15 eguneko epea duela lurren jabeekin adostasunen bat lortzeko. Hori lortu ezean, beste barik Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko diote, hark desjabetze prozesuari onespina eman diezaion.

URIBARRIKO ETXEBIZITZAK

Bestelako gaien artean, Uribarrin eraiki gura dituzten etxebizitzaren proiektua dela-eta Ezker Batuak desadostasuna agertu zuen. Kontua da Uribarrin 180 etxebizitza eraiki gura dituztela: 140 libreak eta



Ezker Batuak eskatu zuen Uribarri inguruan eraiki behar dituzten etxebizitzetatik erdiak izatea babes ofizialekoak.

40 babes ofizialekoak, hain zuzen. EBk, berriz, etxeen erdiak babes ofizialekoak izatea eskatu zuen. Hirigintzako arduradun Agustin Ugartek erantzun zuen agintaldia bukatu baino lehen Arrasaten eraikiko dituzten etxebizitzaren erdia baino gehiago izango direla babes ofizialekoak. Baina, Uribarrin kasuan, etxeak egiteko hitzarme-

na adostuta dagoela eta lurrak-eta erosita daudela. Hortaz, orain atzera egiteak sekulako atzerapena ekarriko lukeela. Aralarrek, berriz, adierazi zuen Uribarriko gunea egitamuari egindako alegazioen artean dagoela; hala, haiek eztabaidatu arte ez luketela ezer onartu behar. Bozketaren orduan, EB eta Aralar abstenitu egin ziren

eta gainerakoek alde bozkatu zuten.

Bukatzeko, mozio bat aurkeztu zuen bozeramaileen batzordeak, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunarekin lotuta. Azaldu zuten alderdien arteko adostasuna lortzearen aurkeztu dutela mozioa halako atzerapenarekin. Hori ere aho batez onartu zuten.

Umeei zuzendutako ekitaldi mordoa antolatu dituzte aurtengo San Andres jaietarako

U.M.

Guztia gertu dute San Andresen auzoko jaiak ospatzeko. Gaur arratsaldean hasi dira, eta domekara arteko egitaraua antolatu dute. Besteak beste, haurren dantza festa egingo dute Gudarien plazan.

Etxafuegoak bota dituzte eta buruhandiak aterako dira arratsaldean San Andresko jaietara hasiera emateko. Eta gero, 22:00etan, Kairo taldearekin dantzaldia izango da Gudarien plazan.

Bihar, berriz, umeendako makina bat ekitaldi antolatu dute. Besteak beste, 11:00etan buruhandiak aterako dira; 11:30etik 14:30era Txatxilipurdik antolatutako haur parkea izango da, puzgarriekin, Bedoñabe eskolako patioan.



Egitarauaz gainera, zaldiko-maldikoak ere izango dira San Andresko jaietan.

12:00etan, kalejira, Dumbots txarangarekin. 16:00etan, umeendako txokolate-jana, Kurtze Txiki plazan. Gero, 17:30ean, berriro kale-

jira eta haren ostean buruhandiak eta bonba japoniarrak. Amaitzeko, Gudarien plazan dantzaldia izango da Dumbots taldearekin.

Eta domekan denetarikoko ekitaldiak izango dira. Adibidez, 12:00etan, Gudarien plazan herri kirolak ikusteko aukera izango da eta horren ostean, auzoko lau pertsona nagusienei omenalditxo egingo diete. Honako hauei, hain zuzen ere: Juan Jose Gorosabel, Jose Luis Telleria, Marina Sanchez eta Amelia Pintori. 13:00ak aldera izango da ekitaldia.

DISKO FESTA ETA AGURRA

Eta jaiekin bukatzeko, 17:00etatik 20:00etara, umeendako disko-festa izango da Gudarien plazan. Bien bitartean, 17:30ean hasita, Samasiku txaranga auzoko kaleak alaitzen ibiliko da. 18:00etan berriro ere aterako dira buruhandiak, eta jaiak hasi zirenean moduan agurtuko dira: etxafuegoekin, 21:00etan. Ondo ibili!

LABUR

Hasi dira sinadurak batzen, Europarako

Martitzenean hasi ziren udal-letxean Herritarren Zerrenda izeneko taldearen aldeko sinadurak batzen. Hain zuzen ere, udal-letxearen aurreneko solairuan eman behar da sinadurara. Eta horretarako, nortasun-agiria eramatea besterik ez da behar. Honako hauek dira ordutegia: goizean, 10:30etik 13:30era eta arratsaldean, 15:30etik 18:30era. Maiatzaren 8a da sinadura emateko azkeneko eguna; hala, egun horretan, goizez bakarrik sinadurak ahal izango da.

Guztira, 40.000 sinadura behar dituzte Herritarren Zerrenda izeneko taldearen sorrerarako. Hala, helburua da 74 lagunek osatutako zerrendari onspena ematea Europako parlamenturako hautatutako kudeetan parte hartzeko.



REALEKO BETERANOAK GARAGARTZAN EGUN-PASA

Zapatuan egun pasa ederra egin zuten Realeko jokalariek. Garagartzan elkartu ziren, aurten Jesus Aranbarri eta Ion Sagastari egokitu zaie eta bazkaria antolatzea. Golzean Arta Mennin izan ziren, eta eguerdian Txerri-hanka taldeak luntx ederra

prestatu zien. Larregi jateko beldur izan ziren gehienak, gero, Ugarran jatekoan zeukaten eta bazkaria. Horrenbestez, eguraldi onak lagunduta, ondo baino hobeto ibili ziren Reala lehenengo mailara igo zuten taldeak. Eta datorren urteko bazkaria, non?



BRETOIAK IZAN GENITUEN BISITARI GOIENAKO EGOITZAN

Bretainiako 48 ikasle izan dira egunotan ibarrean, Arizmendi ikastolakoekin batera. Arizmendikoak martxoan joan ziren hara, eta orain, ikasle bretoiak egokitu zaie Euskal Herria ezagutzera etortzea. Joan den egubakoitzean izan ziren Goienako egoitza bisitatzen. Gure egoitza behar den moduan ezagutzeko, bi taldetan banandu ziren. Telebista ikusten zebiltzala atera genien argazkia, eta ARRASATE PRESSko erredakziora iritsi zirenerako, euren argazkia interneten zegoen, *Goiena.net* atarian, hain zuzen. Euskal Herrian astebete egin eta gero, eguaztenean itzuli ziren Britainiara.

SAN VIATOR IKASTOLAKOEN GALDEREI ERANTZUN EZINKA

Arizmendiko San Viator Ikastolako ikasleen bisita izan genuen joan den astean, eta apur bat kostatu bazitzaigun ere, azkenean lortu genuen argazkia ateratzea. Izan ere, 16 urteko hamabi ikasle horiek komunikabide tailerretan dabilta buru-belarri, eta ikasketaren alde praktikoa egin zuten geurean, komunikabide bat nola dabilen ikusten. Euren ere egin zuten galderaren bat edo beste, baina komunikazioaren gainean baino gehiago, komunikatzaileen gaineko galderak egin zituzten. Izan ere, komunikabide handiagoren batera joateko asmorik ba ote geneukan galdetu ziguten. Ederra galdera, eta hauze erantzuna: Etxean moduan inon ere ez!!!





AITOR LIZARRALDE

Etxean jokaturako partidu guztiak irabazi ditu AGRk, eta joan den astean etxetik kanpo ere irabazteko gauza izan ziren.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate bolada onari eusten ahaleginduko da Deustuaren kontra

'Pitxi' Herreroren mutilek 18-17 irabazi zioten, Iturripen, Bizkaia Deustori

XABIER URZELAI

Azkeneko bi partiduak irabazi egin ditu AGR Arrasatek, eta talde mondragoetarrek bolada onari eutsi gura dio, nahiz eta etxetik urrun jokatu. Bizkaia Deustok oraindik ez du puntu-rik eskuratu, baina bizkaitarrak min egiteko gauza dira.

Igoera faseko lehenengo partidua Bizkaia Deusto taldearen kontra jokatu zuen AGR Arrasatek. Orduan, mondragoetarrek justu-justu irabazi zuten (18-17), baina ordutik hona Pitxi Herreroren mutilek neurria hartu diote igoera faseari. Arrasatearrak bolada onean dira, bigarren astez

jarraian liderrari irabazi diote-eta. Orain dela bi aste Burdin Trapagak galdu zuen Arrasateren kontra lidertza eta joan den asteburuan Gasteizko Corazonistas taldeari tokatu zitzaion mondragoetarren aurrean sufritzea (21-26). Oraingo asteburuan, berriz, azkeneko postuan dagoen eta dagoeneko ezer gutxi egin dezakeen Bizkaia Deustoren kontra jokatu dute.

INDARRAK PARE-PAREAN

Igoera fasean ezin da emozio handiagoa egon, taldeen indarrak pare-parean daude-eta. Inork ez du erakutsi nagusitasun argirik, eta Bizkaia Deusto taldeak izan ezik, gainontzeko taldeek auke-

rak dituzte mailaz igotzeko. Corazonistas eta Romo taldeek zazpina puntu dituzte, baina atzetik datoz Burdin Trapaga eta AGR Arrasate taldeak, seina punturakin. Gipuzkoako beste taldeak, Urolak, lau puntu ditu, baina oraindik ez du amore eman gura.

Bizkaia Deusto da punturik eskuratu ez duen talde bakarra. Hala ere, bizkaitarrak gauza dira edozein momentutan ezustea emateko, eta horrelakorik ez gertatzeko mondragoetarrek gozoz egin beharko dute lan asteburuan. Igoera fasean AGRk bide erdia baino ez du egin, bost partidu geratzen dira-eta. Geratzen den erdian mailari eutsiz gero, taldea bigarren mailara igoko da.

FOTOKIROLA



Xakea kirola dela argi utzi guran

Arrasateko Xake Taldeak salatu egin gura du Eusko Jaurlaritzak xakearekiko hartu duen erabakia. Izan ere, Jaurlaritzak ez du xakea kirol bezala onartu, eta kirol modalitateetik baztertu du. Arrasateko taldeak uste du arrazoi ekonomikoengatik hartu dutela erabaki hori, eta gaineratu du kirol modalitate ezagunek ez dutela inongo arazorik izaten. Amaitzeko, esan, erabaki hori sekulako hanka-sartzea dela. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Betrayer - AC Surcos	7-13
Aloña Taberna - Iriztu Taberna	11-4
Dream Team - Etxerat	6-11
Abokajarro - Speed Boys	8-3
Dribling - Saukelu Scream	4-6
Goma-2 - Lasagabaster	0-1
Rayo Aldeano - You Know!	0-1
Tomahawk - AT Celaya	3-3

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. AC Surcos	10	5	
2. Etxerat	9	5	
3. Betrayer	8	5	
4. Iriztu Taberna	5	5	
5. Aloña Taberna	4	5	
6. Abokajarro	2	5	
7. Speed Boys	2	5	
8. Dream Team	0	5	

PARTIDUAK

MAIATZAK 1, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Betrayer - Iriztu Taberna	Antola.
12:00: Dribling - Lasagabaster	Antola.
13:00: Saukelu Scre. - You Know!	Antola.
15:50: Aloña Tab. - Speed Boys	Antola.
17:00: Dream Team - Abokajarro	Antola.
18:00: AC Surcos - Etxerat	Antola.

Deskantsua: AT Celaya, Tomahawk.

B MULTZOA

B MULTZOA		P	J
1. Saukelu Scream	10	5	
2. Dribling	8	5	
3. You Know!	6	5	
4. Lasagabaster	6	5	
5. AT Celaya	5	5	
6. Tomahawk	5	5	
7. Rayo Aldeano	0	5	
8. Goma-2	0	5	

DOMEKAN EZ DA PARTIDURIK IZANGO

MAIATZAREN LEHENA IZANDA ERE, DENOK ZALDIBARRERA LANERA!

Bihar ospatuko dute Maiatzaren Lehena, alegia, Langileen Nazioarteko Eguna. Hala ere, jende askok joan beharko du Zaldibarrera, lan egitera; edo, behintzat, izerdia botatzera. Eta talde batzuek gogotik egin beharko dute lan, bigarren fasea aurrera doalako eta sailkapenaren taulak parekotasun handia erakusten duelako.

Dagoeneko bost norgehiagoka jokatu dituzte bigarren fasean. Horrek esan gura du bi partidu baino ez direla geratzen fase hori amaitzeko: lau puntu baino ez daude jokoan. A multzoan, AC Surcos eta Etxerat taldeak dagoeneko sailkatuta daude, eta Betrayerrek oso gaizki egin behar ditu gauzak ez sailkatzeko. Horrek esan gura du, seguruenik, Iriztu Tabernaren eta Aloña Tabernaren artean egongo dela jokoan laugarren postua. B multzoan, berriz, gauzak ez dira askorik argitu. Saukelu Scream-ek alde handia du, baina sailkapenean seigarren postuan dagoen Tomahawk taldeak oraindik aukera handiak ditu sailkatzeko. Inork ez dezala amore eman!!!

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Urola - Mondra	Preferentea. Zapatuan. 16:30. Zumarragan.
Euskalduna - Mondra	Ohor. Gazteak. Zapatuan. 11:15. Andoain.
Arrasate - Beraun Berri	Big. Gazteak. Domekan. 12:00. Atxabalpen.
Arrasate - Antiguoko	Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
Arrasate B - San Patricio	Big. Kadeteak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
Arrasate CD - Oiartzun	Infantilak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.
Mondra - Almen Aretxabaleta	Neskak. Domekan. 09:45. Atxabalpen.

ESKUBALOIA

Bizkaia Deusto - AGR Arrasate	Igoera fasea. Zapatuan. 11:30. Deustuan.
--------------------------------------	--

Arrasate - Hondarribia

Territ. Kopa. Domekan. 11:30. Musakolan.	
Egia Juggers - Gatz Museoa	Kadete. Mut. Domekan. 12:00. Egian.
Arrasate - Arrate Amaña	Kadete. Nesk. Domekan. 11:15. Musakolan.
SASKIBALOIA	
Ointxe Arrasate - BKL CAF	Seniorrak. zapatuan. 18:00. Iturripen.

EMAITZAK

FUTBOLA	
Ohor. Gazt. Mondra - Urola	1-2
Big. Gazt. Arrasate - Lazkao	4-3
Ohor. Kadet. Kostkas Miren - Arrasate CD	2-1
Big. Kadet. Arrasate B - Amaikak Bat	3-5
Neskak. Kopa. Aloña Mendi - Mondra	0-2

FUTBOLA

Mailari eutsita, Liga Txapelketa amaitu artean Mondrak badu helbururik

Josu Zubiaren mutilek 0-1 irabazi zioten Juanan Larrañagak zuzentzen duen Berio taldeari; oraingo asteburuan Urola etorriko da Atxabalpera

XABIER URZELAI

Dagoeneko zenbakiak baieztatzen dute Mondra preferente mailan izango dela datorren denboraldian. Hori zen Mondra lehenengo helburua, baina oraindik aukera dago denboraldia zelanbait txukuntzeko. Ibarreko talde onena izatea ez legoke txarto, baina UDA lau puntura dago.

Oraingo asteburuan Urolaren bisita izango du Mondrak. Eta, Urola ez dago ezer oparitzeko moduan, jaitsiera postuak lau puntura dituzte-eta. Mondra, berriz, jaitsiera postuak atzean utzita berriro ere gora begira dago. Polita litzateke hirugarren postuagatik lehian ibiltzea, baina Zarautzek alde handia dauka (bost puntu), eta zentzuzkoagoa da lehenengo bost taldeen artean sailkatzea izatea helburu. Horrez gain, ibarreko talde onena izateko lehiatzea ez da helburu makala. Hori lortzeko, baina, ezinbestekoa da UDA atzean uztea, eta

horretarako, lehenengo harropatu egin behar. Aretxabaletarrak lau puntura daude, eta hamabost puntu daude jokoan.

Joan den astean, Berion, Juanan Larrañagaren mutilek atzerapauso galanta egin zuten Mondraren kontra (0-1). Berio eta Elgoibar hirugarren mailara igotzeko lehian dabiltza, eta oraingoz Elgoibarrek hartu du aurre. Alde hori, baina, puntu batekoa baino ez da, Elgoibarrek ez zuen eta etxean Mondrak egindako oparia aprobetxatu.

Mondrak ez zuen aparteko motibazio behar izan Berioaren kontra gogoz jokatzeko, nahiz eta Elgoibarrek sari txiki bat eskaini. Lehenengo zatian Mondrak ez zuen aparteko ezer egin; ondo defendatzen ahalegindu zen. Bigarren zatian Mondra Berio baino gehiago izan zen, eta Markelek egin zuen partiduko gol bakarra. Aipatzekoa da epaileak egindako lana, inori ez ziolako mesederik egin. Eta hori asko da Juanan Larrañagaren taldearen kontra jokotuta.



Beriyo futbol zelaian 0-1 irabazi eta gero, Mondrak gogoz hartuko du zapatuan Urola. Liga Txapelketa oraindik ez da amaitu.

ARRASATE PRESS

Etxean jokatu duten azken partiduan, derbia izango da ikusgai

X.U.

Ointxe Arrasatek denboraldiko azkenurreko partidua jokatu du bihar arratsaldean Iturripen. Eta norgehiagoka polita izango da, gainera, bi talde gipuzkoar izango dira eta nor baino nor gehiago. Beasain taularen erdialdean dago, baina liderrari irabazteko asmoz etorriko da.

Ointxe Arrasatek garaipen batekin amaitu gura du aurtengo denboraldiko etxeko azken partidua. Eta, hori da urtean zehar zaleek emandako laguntza eskertzeko modu onena. Horretarako, baina, taldeak azken esfortzua eskatu gure die jarraitzaileei, eta Beasainen kontra jokatu duten partiduan ere taldea babesteko eskatu gura diete. Jakina, esan gabe doa Iturripen zale fidelek hori eta askoz gehiago ere egingo dutela.

Ointxe Arrasate Saskibaloi Taldeari bi norgehiagoka geratzen zaizkio aurtengo denboraldia amaitzeko. Jaitsiera fasea fisikoki gogorra dabil izaten, ibarreko jokalariz osatutako talde mondragoetarrak jokalariz gutxi ditu-eta. Psikologikoki, baina, ez da horren gogorra izan, taldea hel-



AITOR LIZARRALDE

Ointxek bihar jokatu du Iturripen denboraldiko azkenurreko partidua.

buru politagatik lehiatu da-eta. Gogorragoa izango litzateke jokalariz gutxi izan, eta gainera, maila ez galtzeko borrokan ibili behar izatea. Denboraldiko txanpa honetan, baina, normala da atsedean hartu gura izatea.

JOAN DEN ASTEKOA HOBETU GURAN
Joan den astean Ointxe Arrasatek 80-69 galdu zuen Durangon,

Tabirakoren kontra. Ointxek desabantaila nabarmena zuen, bizkaitarrek baino bost jokalariz gutxiago zituen-eta. Eta, azken laurdenetan asko igartzen da hori. Horrez gain, baina, Ointxeko jokalariek ez zuten bestetan erakutsitako mailarik erakutsi. Eta, bihar dute aukera proposa Durangon galdutako partidua lehenbailehen ahazteko.

FOTOKIROLA



Arrasate, Kakarraldoren kontra nagusi

Hainbat astean deskantsua izan eta gero, Arrasate Errugbi Taldeak joan den domekan jokatu zuen Kakarraldoren kontra, eta mondragoetarrak erraz nagusitu ziren (24-13). Normalean, zapatu arratsaldeetan jokatzeko dituzten Arrasatek partidua, baina joan den astean domekara atzeratu zuten partidua, zapatuan beterranoek jokatu behar zuten-eta. Norgehiagoka hori, baina, bertan behera utzi behar izan zuten, kontrarioek ezin izan zuten-eta etorri. /X.U.

BESAIDE MENDI ELKARTEA

Abian da mendiko medikuntza eta sorospeneko bigarren ikastaroa

Ikastaroa ekainaren 4an, 5ean eta 6an egingo dute; izena emateko egunak maiatzaren 4a eta 11 izango dira

XABIER URZELAI

Arrasaten zaletasun handia dago mendira joateko, bai osteratxo bat egiteko eta baita goi mailako mendiak igotzeko ere. Jakin egin behar da, baina, mendian ibiltzen, eta zerbait gertatuz gero komeni da zer egin jakitea.

Mendian ezbeharren bat izanez gero nola jokatu ikasteko antolatatu du Besaide Mendi Elkarteak *Mendiko medikuntza eta sorospeneko ikastaro praktikoa*. Ez da lehenengo aldia horrelako ikastaro bat antolatzen dutena, baina aurrekoan alde teorikoa landu zuten, eta orain, alde praktikoari emango diote garrantzia.

Ikastaroa Eginon (Araba) egingo dute, ekainaren 4an, 5ean eta 6an. Izena emateko egunak, berriz, maiatzaren 4a eta 11 izango dira. Interesatuok Besaideren egoitzara joan beharko duzue, 19:30etik 20:30era bitartean. Ikastaroan parte hartzeko pertsona bakoitzak 120 euro ordaindu beharko lituzke, baina Euskal Herriko eta Gipuzkoako Mendi Federazioek emandako dirulaguntzari esker, 96 euro ordaindu beharko dira. Eta prezio horren barruan daude ikastaroko izenematea eta pentsio osoko egonaldia.

AURREKO IKASTAROEK HARRERA ONA

Ikasle kopurua mugatua denez, jendeak izena eman ahala beteko da zerrenda, 24 lagunekoa taldea osatu arte. Ekainean egingo duten ikastaro horrek ikastaro teorikoak izan zuen harrera ona izaten badu, aukera izango da irailean beste ikastaro bat antolatzeko. Hortaz, komeni da ikas-



ARRASATE PRESS

Ikastaroak helburu garbia du: mendiko larrialdietan medikuntza eta sorospeneko lanak nola egin irakastea.

taroa irailean egin gura dutenek Besaideko lagunei jakinaraztea. Jakin, argibide gehiago gura izanez gero Besaideren egoitzara joan baino ez duzuela, asteartean, 19:30etik 20:00etara.

IKASTAROAREN HELBURUAK

Ikastaroak helburu garbia du: mendiko larrialdietan medikuntza eta sorospeneko lanak nola egin irakastea. Horretarako, ikastaroak hiru abiapuntu izango ditu: lehen, mendian izaten

diren ohiko istripuetan nola jokatu behar den erakustea; bigarrena, oinarrizko erreskate lanak nola egin behar diren irakastea; eta, hirugarrena, erreskate talde profesionali behar den moduan nola lagundu irakastea.

Hori guztia irakasteko bi egun izango dituzte. Parte-hartzaileak egubakoitzean (ekainak 4) arratsaldeko seieta iritsiko dira Eginora, eta afaltzeko ordu arte taldeak egin eta ikastaroan beharko duten materiala

jasoko dute. Afaldu eta gero ez da askoz gehiago egiteko astirik izango, hurrengo egunean goizean goiz jaiki beharko dute-eta. Zapatuan eta domekan goiz eta arratsalde izango dute ikastaroa. Besteak beste, eskalatzeko sokekin korapiloak nola egin, segurtatzen ikasi, bihotz-biriketako bizkortze ariketak egin eta zaurituak nola garraiatu ikasiko dute. Eta, ariketa horiek guztiek alde teorikoa eta praktikoa izango dute.

ATLETISMOA

Jonathan Perez bikain, Euskadiko Txapelketan

Joan den zapatuan jokatu zuten Mendizorrotzan Euskadiko Taldekako Atletismo Txapelketa, eta Jonathan Perez lehena izan zen pertika jauzian. Jonathanek 4,60 metroko jauzia egin zuen, eta jauzi horri esker eskuratu zituen probako zortzi puntuak. Lehenengo proba izanda, eta zebilen haize zakarra kontuan edukita, pozik egoteko moduko saioa egin zuen atleta mondragoetarrek. Horrela jarraituz gero, eskura izango du bost metroko jauzia.

KIROLDEGIA

Bihar, Arrasateko kiroldegiak itxita egongo dira

Bihar, maiatzak 1, Musakola-ko eta Iturripeko kiroldegiak itxita egongo dira, baita Uarkape pilotalekua ere. Hala ere, zapatu arratsaldean Ointxe saskibaloia taldeak jokatu duen partidurako ez da arazorik izango, norgehiagoka jokatuzeko taldeak zabaldu egingo du-eta Iturripeko kiroldegia.

TRIATLOIA

Ekainaren 5ean, Debagoieneko Triatloia

Antxintxika Debagoiena Triatloia Taldea dagoeneko hasi da aurtengo Debagoieneko triatloia prestatzen. Aurten, ekainaren 5ean korrituko dute triatloia, eta aurreko edizioetan moduan, taldeak laguntza beharko du triatloia antolatzeko. Aurreko edizioek arrakasta izan dute, eta seguru aurten ere ibarreko taldeak aurrean ibiliko direla.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxes: 943 77 14 76

ELKARTEAK/ 2002an, elkartearen zati bat ordenazior kanpo gelditu zen, eta egoitzaz aldatu behar izan zuten

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute Casino elkarteak, arazoak konpondu ostean

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute Casino elkarteak. Egoitza berria Iturriotz kalean zabaldu dute, hainbat arazo izan ostean. 19:00etan bazkide guztiak batu eta mokadua hartuko dute. Egoitza txikiagoa da, baina oso txukuna, eta hainbat aldaketa egin dituzte.

Casino Arrasateko elkarte gastronomiko zaharrenetariko bat da. 2002an Udalak erabaki zuen elkartearen zati bat ordenaziotik kanpo zegoela. Arrazoi hark baldintzatuta, elkarteak batzarra Casinoren egoitza zaharra saldu eta beste bat eskuratzea erabaki zuen. Aldaketa hori egiteko, bazkideek —jarraitu gura zutenak— diru gehiago ipini behar izan zuten, eta Iturriotz kalean lokal bat erosi zuten. Lanak bukatzen zebiltzala, bizilagunekin hainbat arazo izan zituzten, eta epaiketak izan zituzten. Arazo nagusia zen bizilagunek ez zutela onartzen elkarteak keak eta saneamenduak fatxadatik ateratzea. Hala, Casino elkarteak epaiketak galdu, eta bere kasa inbertsio handiak egin zituen arazo horiek konpontzeko. Horren ondorioz, elkartearen inaugurazioa bost bat hilabete atzeratu da.



Bazkideak Iturriotz kaleko Casino elkarteak inauguratzeko desatzen daude.

HAINBAT ALDAKETA EGIN DITUZTE

Casino zaharrean 240 bat bazkide zeuden, baina egoitza aldaketaren eta gainerako ordainketaren eraginez, hainbat lagunek bazkide izateari utzi zioten. Gaur egun, 145 bazkide dira.

Erabakitzeak dauden estatutuaren, hainbat aldaketa egin dituzte: batetik, emakumeek ere badute bazkide izateko aukera,

Emakumeek ere badute elkarteak bazkide izateko aukera, eta dagoeneko bi daude

Batzarkideak zozketa bidez aukeratuko dituzte, bazkideen inplikazioa lortzeko

Bizilagunekin izandako arazoaren ondorioz, bost hilabete atzeratu da inaugurazioa

eta dagoeneko bi emakume bazkide dira. Bestetik, estatutuaren ondorengotzarako eskubidea bermatu dute, bazkide izateari uzten diona edo hiltzen den bazkidea ordezkaturia izan dadin.

Horrekin guztiarekin batera, elkarteak batzarra aldatzeko modua aukeratu dute. Lehen, hautagai batzuk izendatu eta horien artean aukeratu zuten. Gaur egun, berriz, zozketan lagun bat aukeratu dute eta alfabetikoki jarraitzen diotenen lagundu behar diote. Horrela, bazkideak gehiago inplikatzeko gura dute. Egungo batzarra honako hauek osatu dute: Antonio Altzak, Jesus Aliagak, Ramon Aperiibaik eta Julito Agirrebeitiak.

EGOITZA TXIKIAGOA, BAINA MODERNOA

Iturriotzko egoitza Ferreriasen zutena baino dezente txikiagoa da. Taberna dauka, biltegia, sukaldaria, komuna eta jangela. Jangelan 73 lagunendako lekua dago. Bazkide gehienek, egoitza ikusita, aurrekoarekin alderatuta txiki delako diote. Hala ere, batzarkideak ez daude arduratuta, euren esanetan, egunerokotasunean bazkide gutxi ematen diote eta erabilpen handia.

Hartutako edari eta jakiak apuntatzeko sistema modernoak ezarri dute. Guztiak ordenagailuan apuntatu dituzte, eta hila-ren bukaeran, diruzainak kontu korrontetik kobratuko die bazkideei. Horregatik, astean bazkide guztiak elkarteak ikusi dute eta ordenagailuaren funtzionamendua azaldu diete.

Gaur, egubakoitza, egoitzaren inaugurazio ofiziala egingo dute 19:00etan. Bazkide guztiak deitu dituzte inauguraziora, eta mokadua egingo dute.

Arrasateko Musika Eskolak batzar orokorra egin zuen atzo, eguena

I.B.

Atzo, eguena, Arrasateko Musika Eskolak urteko batzar orokorra egin zuen. Urterako hainbat egitasmo adostu zituzten, eta etorkizuneko egoitzaren gainean ere berba egin zuten.

Atzo, eguena, Arrasateko Musika Eskolak urteko batzarra egin zuen, 19:00etan. Honako hauek esku hartu zuten: Xabier Retegi presidentek, Marta Izagirre zuzendariak, Julio Gallastegi diruzainak eta Edorta Ayastuy idazkariak, hain zuzen ere. Hainbat kontu izan zituzten hizpide.

Besteak beste, 2003ko diru-kontuak onartu zituzten; plan estrategikoaren memoria gainbegiratu zuten; 2003-2004ko kudeaketa egitasmoa adostu zuten; eta musika eskolako egoitza berriaren proiektuaren gainean berba egin zuten.

Plan estrategikoaren ekintzei dagokionez, urtero kontzertu pedagogikoak eta musikaren gaineko berbaldiak egitea eta irakasteko terminologian euskaraz gehiago ezartzea erabaki zuten.

Egoitza berriaren proiektuaren gainean ere izan zuten zer aztertu. Arrasateko Musika Eskolak eta Goikobaluk proiektu bateratu egin zuten Saiolango etxa-

bea eta lehenengo solairua hartzeko, baina Udalak beste asmo batzuk ei ditu.

DOMEKAN, BI KONTZERTU


Etzi, domeka, Airean-ek, Euskal Herriko gitarra jotzaileen elkarteak, kontzertua egingo du Donostiako udaletxean. Beste batzuen artean, Arrasateko Musika Eskolako lau gaztek esku hartuko dute: Josu Ancinek, Iñaki Rivasek, Julen Paredesek eta Manex Arriolabengoak, hain zuzen ere. Emaldia 18:00etan izango da.

Domekan baita ere, Arrasateko Musika Eskolako txistulariek kontzertua egingo dute musika eskolan, 12:30ean.



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Gazte askok esku hartzen dute Arrasateko Musika Eskolako ekimenetan.



Ceramicarte-k antolatutako Zeramikagileen Topaketetan ekintza ikusgarriak egingo dituzte.

CERAMICARTE

Maiatzerako ere kultura ekintza mordoa antolatu dituzte herrian

IKER BARANDIARAN

Kultura Sailak ipini zituen helburuak betetzen dabiltzala azaldu digu Ines Aldaik. Horrez gain, Udalak eta beste elkarte batzuek maiatzerako antolatu dituzten ekitaldien gainean egin digu berba Inesek.

Udal talde berria osatu zutenean, Kultura Saileko arduradun Ines Aldaik esan zuen herrian gelditu gura zutenendako kultura ekitaldiak antolatuko zituztela. Hau da, bermatu gura zuen arrasatearrak herrian gelditzeko aukera izatea, beti Gasteizera edo beste leku batzuetara joan beharrean.

Horrez gain, Udalean lanean hastearrekin bat Alai zinema aretoa itxi egin zuten, eta Kultura Sailak, arazo hori konpontzeko, Amaia Udal Antzokian film emanaldiak antolatzea erabaki zuen. Ines Aldaik honako hau azpimarratu du: "Meritua ez da gurea, beste udal talde batek gauza bera egingo luke". Kontua da ekainera arte egubakoitzetik astelehenera bitartean filmak emateko konpromisoa hartu zutela, proba moduan, baita antzezlan gehiago antolatzeko ere.

Aldaik azpimarratu du oraindik ez dutela baloraziorik egin, baina orokorrean pozik daude herritarren harrerarekin. Horrez gain, zineklubaren egunaren gaineko kritikak aintzat hartu ditu, eta honako hau azaldu du: bere ustetan zineklubarako egun aproposena eguna dela, hain zuzen

ere, baina proba egiterakoan beste zailtasun batzuk izan zituztela. Uztailean eta abuztuan Amaia Udal Antzokian ez dute asteroko film eskaintzarik emango.

IBARREKO UDALAK BATERA

Debagoieneko Mankomunitateak —hau da ibarreko udal guztiak— antolatu duen *Ipparaldea bertan* programari dagokionez, Aldai oso pozik dago. Oso gauza positibotzat hartu du ekimena, batez ere kultura arloan udal guztiak gauza bateratuak egiteko gai izan direlako. Aldairen ustetan, arrasatearrek herrian kultura ekimen nahikoa izateko helburua ibarrekoa ere izan daiteke. Hau

*Gaurtik maiatzaren
16ra bitartean
Zeramikagileen
Topaketa egingo
dute herrian*

*Hilaren 22an, 23an
eta 24an, alde
zaharra Erdi Aroko
oihalekin
apainduko dute*

da, udal guztien artean ibar mailan gauza gehiago antolatu eta herritarrek eskaintza ibarrean edukitzea. Ekitaldiak kendu beharrean, gehitzea, hain zuzen.

ERDI AROKO AZOKA ETA BESTE

Maiatzerako ekitaldi ugari antolatu dituzte. San Andresko eta Musakolako jaiez gain, film mordoa emango dituzte, Arrasateko Musika Eskolak antzerki pedagogikoa egingo du, eta bi azoka ikusgarri antolatu dituzte.

Batetik, *Ceramicarte* aldizkari digitalak, Udalaren laguntzarekin, apirilaren 30etik maiatzaren 16ra Zeramikagileen Topaketak antolatu ditu. Monterronen eta Harresi aretoan zeramikaren gaineko erakusketak interesgarriak ipiniko dituzte, berbaldiak antolatu dituzte, eta besteak beste, Herriko Plazan labe erraldoi bat ipiniko dute eta Racu jaja egingo dute.

Horrez gain, maiatzaren 22an eta 23an, Erdi Aroko azoka egingo dute. Seber Altuben umeendako jolasak egongo dira. Iturrioz eta Erdiko kaleetan, eta baita Herriko Plazan ere, salmenta postu ugari ipiniko dituzte. Herriko Plazan, besteak beste, ehiza-hegaztiak egongo dira. Herriko Plazatik San Juan Bataiatzailearen elizaraino Erdi Aroko langintzen gaineko tailer mordoa ipiniko dituzte: urregileak, larrutz egileak, beiragileak, eta abar. Are gehiago, alde zahar guztia Erdi Aroko oihalekin apainduko dute.

Bi komedia eta musikal bat emango dituzte Amaian

I.B.

Asteburuan filmen eskaintza zabala egongo da Amaia Udal Antzokian. Zineklubean, *The Station agent (Vías cruzadas)* emango dute. Eta gainontzeko egunetan, *Y entonces llegó ella* eta *Escuela de Rock*.

Aurreko asteburuetan Aste Santuko oporrak direla-eta edo antzokian beste emankizun batzuk antolatu dituztelako, Amaia Udal Antzokian ez dute film askorik eman. Gaurtik hasita astelehenera arte, baina, egunero emango dituzte filmak.

Gaur, egubakoitza, zineklubean, *The Station agent (Vías cruzadas)* filma emango dute, 20:30ean. Film hori komedia da eta 88 minutu irauten du. Tom McCarthy zuzendariaren lehengo filma da. Orain arte antzerkian lan egin du, eta berak idatzi du film horren gidioa. Sundanceko eta Donostiako zinema jaialdi independentetan sari garrantzitsuak jaso ditu.

Finbar McBridek nanismoa dauka, eta lasai bizi gura du. Trenak maite ditu, eta tren geltoki zahar batera bizitzera joango da. Han, beste bi lagun ezagutuko ditu: familiarreko ezbeharrak izan duen Olivia artista eta Joe, hurburgesa saltzaile kubatar bat.

Filmaren protagonista Peter Dinklage da (*Vivir rodando; Human nature...*), eta harekin batera honako hauek ere parte hartzen dute: Patricia Clarksonek (*High art; Seducción a la carta...*) eta Bobby Cannavalek (*Gloria; El Coleccionista de huesos...*), besteak beste.

Bihar, zapatua, domekan eta astelehenean, *Y entonces llegó ella* filma emango dute. Zapatuan eta

domekan, 19:00etan eta 22:00etan; eta astelehenean, 20:30ean.

AEB-ETAKO KOMEDIA NAHASIA

Y entonces llegó ella filmak 90 minutu irauten du, eta John Hamburg zuzendariak egin du. Hamburgek hainbat film independente egin zituen, eta gero *Los padres de ella* film arrakastatsua eragingo idatzi zuen.

Reuben Feuffer bikotelaun bariko gizon bat da. Aseguru agentzia baten lanean dabil, eta arriskuen beldur da. Polly Prince xarmanta ezagutuko du eta harremanetan hasiko dira, baina Pollyren bizimodua ez da ohikoa, eta horrek Reubeni buruhausteak eragingo dizkio.


Protagonistak dira Ben Stiller (*Los Tennebaums; Algo pasa con Mary; Los padres de ella...*) eta Jennifer Aniston (*Como Dios, Novio de alquiler*) eta beste film batzuetan eta *Friends* telebista saioan egin du lan.

FILM MUSIKAL GANBERROA

Bihar, zapatua, *Escuela de Rock* film musikal emango dute, 17:00etan. Udalak umeen eta gaztetxoek tartean emango du film hori. 108 minutu irauten du, eta Richard Linklater zuzendariak egin du. Linklaterrek orain arte aktore lanak egin ditu (*Spy Kids; Antes del amanecer...*).

Dewey Finn gitarra jotzailea musika talde baten bota dute eta ez dauka dirurik. Eskola ospetsu baten musika irakasteko kontratatuko dute, eta hango orkestra rock gogorra egiten duen talde bilakatuko du.

Protagonistak Jack Black (*Alta fidelidad...*), Mike White (*The good girl...*) eta John Cusack (*Alta fidelidad...*) dira. Umeak benetako musikariak dira.



Escuela de Rock filma gaztetxoek gain musikazaleek ere gozatzeko dute.

ARRASATE PRESS

E, TXO!

KONTZERTUA ETA AURKEZPENA GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, *Ekintza Zuzena* aldizkariak azken zenbakia aurkeztuko du gaztetzean, 18:00etan. Horrez gainera, kontzertua antolatuko du. 22:30ean, MCD eta Los Chicos Boom taldeek joko dute.

IPUIN BARREGARRIEN LEHIAKETA

Debagunek, Debagoienako Euskara Elkartearen elkargoak, *Barre barra-barra* ipuin barregarrien lehiaketa antolatu du. Bi sail ditu: idatzizkoan, onenari 450 euro emango dizkiote; eta debagoienadar onenari 150 euro. Ahozkoetan, onenari 300 euro emango dizkiote. Euskal Herri osoko biztanleek esku hartu ahal izango dute. Ipuinak norberaren euskalkian idatzita bidaltzea eskatzen dute. Idazlanak hiru kopiatan, ordenagailuz edo eskuz idatzita, eta bi edo zazpi orrialdeko luzerarekin aurkeztu beharko dira. Grabazioen kasuan, ipuin edo pasadizo barregarriak bidali beharko dira, norberaren euskalkian. Bi kopia aurkeztu beharko dira, 10-15 minutukoak. Lanak maiatzaren 28a baino lehen bidali: Debagune. Ipuin barregarrien lehiaketa. Errotalde jauregia z/g. 20570, Bergara.

GREENPEACE-REN UDALEKUAK, CADIZEN

Greenpeacek gazteendako udalekuak antolatu ditu Algodonales nekazarien aterpetxean (Cadiz). 9 eta 17 urte arteko gaztetxoek esku hartu ahal izango dute. Hamar eguneko egonaldia izango dira: uztailean hiru eta abuztuan bat. Lehen, bigarren eta laugarren txandak 350 euroko prezioa izango dute; eta hirugarrenak, 390 euro. Izenematea zabalik dago.

JIMMY/MCD TALDEKO BATERIA JOTZAILEA

“Abuztuan izena aldatuko diogu taldeari, arazo barik musika egiten jarraitzeko”

IKER BARANDIARAN

Giroa nahastuta dago MCD taldearen inguruan, eta izena aldatzeko asmoa dute. Hori baino lehenago, bihar, zapatua, kontzertua emango dute Arrasaten, Chicos Boom-ekin batera, *Ekintza Zuzena* fantzinearen alde.

Komunikabideetan aditzera eman duzue, MCDren ibilbidea eten egin behar duzue. Zergatik hartu duzue erabaki hori?

Kontu luzea da. Izan ere, MCD taldetik euren kabuz joan diren taldekide batzuek diote gure managerrak taldeari iruzur handia egin diola. Hori oraindik frogatzen dago, baina taldeari kalte egin diote, guk managerra babesten gabiltzala diote-eta. Orain arte gure lagun handiak izan direnekin istilurik ez edukitzearen, MCDren ibilbidea bertan behera uztea erabaki dugu. Abuztutik aurrera izena aldatuko dugu, eta kito. Baliteke Macarrada izena ipintzea.

MCD guretzat zaletasuna da. Jotzea gustuko dugulako gabiltza honetan, eta izena aldatuta lasaigo bagabiltza, ba aurrera!

Beraz, Arrasatekoa azkenetakoa izango da?

Bai, baina hemendik abuztura bitartean baditugu beste

batzuk. Batez ere azkeneko disko —*Macarrada*— kanturak joko ditugu, eta zaharragoak ere bai, jakina.

MCD 80ko hamarkadako sasotik bizirik gelditzen den Euskal Herriko punk talde bakarrenetakoa da. Zer balorazio egiten duzue?

20 urte daramatzat talde honetan musika egiten eta ondo pasatzen. Hainbat lagun bidean gelditu dira, baina ez gara eszenatik jarraitzen dugun gure sasotik bakarrik. Gainera, talde gazteagoak ere badaude, lekukoa hartu dutenak. Eta hitz kritikak egiteko arrazoiak oraindik asko dira. Telebista ikustea edo egunkaria irakurtzea besterik ez da egin behar.

Macarrada disko abesti baten RIP taldea gogora ekarri duzue.

Bai, ezinbesteko erreferentzia izan dira guztiontzat, eta lagun handiak ginen. Gainera, aspaldian zuzenekoetan *Enamorado de la muerte* kantua jotzen dugu, Karlosen omenez.

Azkeneko diskoa zuen kabuz atera duzue, eta rock-and-rolla eta punka uztartu dituzue...

Ez dakigu besterik egiten, eta hori dugu gustuko. Diskoa Interneten jarri dugu, gura duenak handik jaits dezan, eta industriari bizkarra emateko.



WILMA

“Abesti kritikak egiteko arrazoiak oraindik asko dira. Berriak entzuteak sortzen du hori”

“Azkeneko diskoa Interneten ipini dugu, gura duenak handik jaits dezan, doan”

San Juanetako kartel lehiaketa, abian

I.B.

Urtero moduan, Udaleko Kultura Sailak abian jarri du 2004ko San Juan jaietako kartel iragarlearen lehiaketa. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 21ean bukatuko da, eta oinarriak betikoak dira.

Abian da 2004ko San Juan jaietako horma-irudia egiteko lehiaketa. Lehiaketa honetan, Debagoienan bizi edo erroldatuta dagoen

edozeinek esku hartu ahal izango du.

Egileak kontuan izan beharko du aukeratutako irudia jaietako egitarauaren azalean erabiliko dela. Horregatik, herriarekin eta jaiarekin lotura zuzena izan beharko du.

Jai egitarauaren neurria honako hau izango da: 28x21 cm. Beraz, irudia gutxienez neurri horretan aurkeztu beharko dute. Teknika librea izango da, eta kartelak derrigorrez testu hau izan

beharko dute: 2004ko San Juan Jaiak Arrasate.

MAIATZAREN 21A BAINO LEHEN AURKEZTU Irabazleak 750 euroko saria jasoko du, baina kopuru horri PFEZ-aren atxikipena ezarriko zaio.

Kartelak 2004ko maiatzaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira. Halakoetan ohikoa den moduan, egilearen nortasuna ezin izango da azaldu eta atzealdean lelo bat dutela aurkeztu beharko dira kartelak.

Antolatzaileek egoki baderituzote jasotako kartel guztiekin erakusketa egingo dute.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta jakinarazten duten egunean emango da ezagutzera. Saritzen den lana Udalen esku geldituko da. Honek kaleratzeko eskubidea izango du.

Parte-hartzaileek saritu barik gelditzen diren lanak erakusketaren azkeneko egunetik hogeita hamar eguneko epean jaso ahal izango dituzte.

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

BEHEKODENDATIK

Ana Ugarte

MESON MANOLO

XABIER URZELAI

Ana oin dala bost hillebete animau zan Meson Manolo jatetxien ardurie hartzera, eta hori aurrera atara guran dabil jo eta fuego lanien. Lehenau, Oñatiko hotel baten eta Londresen be lan egindakue da. Horrek erakusten dau oñatiar honek badakixela sukaldien lan egittie ze dan.

Ze falta jako Mondragueri?

Ez dot uste gauza askorik falta jakonik; neuk nahiko konpleto ikusten dot.

Eta, ze dauko ona?

Herrixen dauen girue, eta jentie.

Ze falta jatzu zeuri?

Negoziue aurrera ataratie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Ezer be ez.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

La milla verde / En el nombre del padre / Maná.

Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Mendi aldera.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie.

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Ez neuke holakorik egingo.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Jentiekin tratuen egitten jakittie.

Denbora librien ze egitten dozu?

Biajau, herrixek ikusi.

Kapritxo bat.

Biajeren bat egittie.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Islatxon bat.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Mondraguen lan asko egin biher dittuela. Izen be, horrek esan gureko dau astien ziber langille asko etorriko diela gurera bazkaitten.

Ze topau geike Meson Manolo jatetxien?



“Lehengo jabiak itxi egin euen, baiñe oin, Meson Manolon eguneko menuek emuten dittugu”

Danetik. Pintxuek, bokadilluek, eguneko menue, kartara jateko aukerie, menu espezialak, talde edo koadrillendako menuek...

Noix eukitten dozue jente gehixau?

Aste bukaeretan.

Oin, janari tradizionala be ofreziduten dozue.

Bai, negoziue hartu neuenien aldaketa batzuk egin gure izen neuen. Eta, hain justu be, hamengo janari tradizionala ofrezidutie pentsau neuen: bakalaue, txuletak... Hala eta be, lehengo gauza batzuk be badittut.

Izena ez dozue aldatu.

Ez. Meson Manolo izen ezagune da Mondraguen, eta momentuz

“Torreznuek arrakasta haundixe daukie, jentie Oñatittik be etorten da horreik jaten”

ez dauket hori aldaketako asmorik. Aldaketa gehixau egitteko asmue dauket, baiñe poliki-poliki egingo dittut horreik aldaketok.

Afaittera inbitau ezkeru, ze gomendatuko zeuke?

Neu iberiko batzukin hasiko nitzake, eta gero entsalada epela eskatuko neuke; txipiroi eta gulekin. Eta, buketaketa gure dana: txuleta ederrak ataraten dittugu, baiñe arraiñe be oso ona egoten da.

Jarraiketan dozue torreznuek egitten?

Bai. Lehengo jabiak be preperetan zittuen, eta arrakasta haundixe eukien. Erabaki neuen torreznuek ez kentzie, eta jentie Oñatittik be etorten da horreik jaten.

NIREBIDAIAHURA/ Gorka Ortiz de Mendibil

Finlandiara / 2004ko apirilean

Joan den astean Ravaniemin (Finlandia) geratu ginen Gorkarekin, izoztutako erreka gainean iraupen eskia egiten. Orduan ere esan genuen ondo aprobetxatu zituela Gorkak Finlandian egindako 15 egunak, eta hori baieztatzeke bidaiaren kontakizunarekin jarraituko dugu.

Ravaniemin astebete egin zuen Gorkak, neskalagunarekin eta neskalagunaren senitartekoen batera. Ekintza mordoa egin zituzten han, eta joan den astean kontatu genizkizuen batzuk. Iraupen eskia egin eta hurrengo egunean elurretako motoak alokatu zituzten: “Bi orduko bidaiia egin genuen. Ordurako elurra urtzen hasita zegoen, eta kontuz ibili beharra zegoen. Ez zen posible edozein lekutatik ibiltzea. Gidari batekin joan ginen, hura aurretik eta gainontzekook atzetik. Horrek esan gura du gidariak erabakitzen zuela zein abiaduratan joan behar genuen. Gustura ibili nintzen; indar handiko motoak ziren”.

Elurretako motoekin, husky txakurrak entrenatzen zituzten parke batera joan ziren: “Filmetarako edo iragarkiak egiteko txakurrak entrenatzen zituzten han, baina txakurrak etxekotzeko ere egiten zuten lan. Txakurrekin apur bat jolasu eta eurek tiratutako leretan bueltatxo bat eman ahal izan genuen. Gero, motoak hartu eta etxera itzuli ginen”.

Hurrengo egunean Kemirako bidea hartu zuten, *icebreaker* edo izotza apurtzen duen itsasontzia hartuta: “Itsasontzian bazkaldu genuen, hango otordu tipikoa, hain zuzen ere: izokin-zopa eta elur-orein okela. Ez zuen eguraldi batere onik egin, baina asko gozatu nuen itsasontziak izotz artean aurrera nola egiten zuten ikusita”.

XABIER URZELAI



Gorka eta neskalaguna, husky txakurrekin egindako osteratxoan.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitez, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ELKARRIZKETA

MARIAN BARRAGAN/DANTZA IRAKASLEA

“Oso gustura nabil erretiratuekin lanean; oso maitekorrak dira”

IKER BARANDIARAN

Marian Barragan eibartarra da, eta dantza eskolak ematen dabil Arrasaten, Emakume Txokoan eta Abaroa elkarteetan, hain zuzen ere. Marianek gizonetzko gonbidapena egin gura die dantza egin dezaten.

Noiz hasi zinen dantzaz?

Umea nintzeneko dantzaren gaineko oroitzapen argirik ez daukat, baina nerabezaroan, 1990ean-edo, izugarri zaletu nintzen. Sasoi hartan dantza ikastaroak egitea erabaki nuen, eta horretan buru-belarri hasi nintzen.

Eta noiz hasi zinen irakasle?

Ja kasualitatez izan zen. 1998an Bilboko lagun batzuek eskolak emateko proposamena egin zidaten, eta baiezkoa eman nien. Ordura arte nire gozamenarako ikasten nuen. Handik aurrera, prestakuntza handiagoa hartu behar izan nuen, gero beste irakasteko.

Zein dantza ikasketa egin dituzu?

Egin ditut, eta oraindik ikasten jarraitzen dut. Bartzelonan, Ortosen akademian ikasi nuen. Horrez gain, aspalditik T5eko koreografoarekin, Toni Escartinekin, ikasten nabil; Santiago eta Belen argentinarrekin tangoak ikasi ditut; eta Karibeko dantzak ere ikasten nabil. Etengabe gehiago ikasi beharra daukat.

Eta zuk zeuk zein dantza irakasten dituzu?

Denetik: pasodoblea, tangoa, rock-and-rolla, boleroa, txa-txa-txa, baltsea, samba, salsa, merengea, bachata, cumbia, ballenatoa...

Arrasaten bi lekutan ematen dituzu eskolak, ezta?

Bai, Natalio Maiztegiarekin batera Abaroa erretiratuen elkarteetan hasi nintzen, eta hortxe jarraitzen dut. Horrez gain, Emakumeen Txokoan ere dihardut irakasle. Nataliok hutsune han-



“Dantzatzen duten gizonak izugarrizko arrakasta dute emakumezkoen artean”

dia utzi du, lagun moduan eta prestakuntza ikaragarria zuen irakasle moduan.

Gustura zabiltza erretiratuei dantza erakusten?

Oso gustura. Lehenengo aldia da, eta pozik nago. Oso maitekorrak eta begirunetsuak dira.

“Natalio Maiztegiak hutsune handia utzi du, lagun moduan eta irakasle moduan”

Ikasle gehienak emakumezkoak dira?

Oraindik bai, baina gero eta gizonetako gehiago ditut. Ausartzen ez direnek ez dakite zer galtzen duten: dantzatzen dutenek izugarrizko arrakasta izaten dute emakumezkoen artean.

LABUR

Urteroko erretiratuen bazkarirako txartelak eskuragarri daude herriko elkarteetan

Urtero moduan, SUDCek eta Udalak herriko erretiratuendako bazkari erraldoia egingo dute Musakolako kiroldegian. Maiatzaren 29an izango da hitzordu hori, eta dagoeneko herriko erretiratuen elkarteetan txartelak eskuragarri daude. Bazkideek euren elkarteetara jo dezakete. Maiatzaren 20a izango da txartelak hartzeko azkeneko eguna.

Toki Argi elkarteko erretiratuek Valentziako inguruak bisitatuko dituzte, irailean

Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkarteak Valentziako inguruak bisitatzeko bidaia antolatzen hasi da. Irailaren lehen hamabostaldian joango dira eta, besteak beste, Valentzia, Alacant, Puerto Sagunto, Ciudad Real, Benidorm eta Salou bisitatuko dituzte. Zazpi-zortzi eguneko bidaia izango da. Ordaindu beharrekoa zehaztu bezain laster, aditzera emango dugu.



Toki Argikoak, oso gustura Italian

Martxoaren 24tik 31ra Santa Marinako Toki Argi elkarteko 103 erretiratut Italiara bidaia egin zuten. Bidean hainbat geldiune egin zituzten: besteak beste, Nizan, Monakon eta Montecarlo. Italian bertan hainbat hiri bisitatu zituzten: Erroma, Pisa, Siena, Florentzia, Milan eta Venezia; eta, zer esanik ez, Vatikanoa ere ikusi zuten.

Toki Argi elkarteko arduradunek aditzera eman dute bidaian egon zirenek elkarteko bulegora jo dezaketela argazkiak ikustera eta kopiak egitera. //I.B.

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



ARRASATE
Sergio Merino
Maiatzaren 4an, 18 urte.
Zorionak! Aitaren eta ama-
ren partetik.



ARRASATE
Ariane Amozarrain
Apirilaren 20an, 3 urte.
Zorionak! Familiakoan par-
tetik.



ARRASATE
Ander Amozarrain
Apirilaren 22an, 5 urte.
Zorionak! Familiakoan par-
tetik.



ARRASATE
Eneko Azpiazu
Apirilaren 10ean, 8 urte.
Zorionak! Eli eta etxeokak.



ARRASATE
Garazi Gartzia
Apirilaren 27an, 13 urte.
Zorionak! Koadrilakoan
partetik.



ARRASATE
Jone Martinez
Apirilaren 29an, 13 urte.
Zorionak! Koadrilakoan
partetik.



ARRASATE
Marta Garcia
Apirilaren 28an, 13 urte.
Zorionak! Xabiren partetik.



ARRASATE
Miriam Nuevo
Apirilaren 5an, 13 urte.
Zorionak! Ikaskideen par-
tetik.



ARRASATE
Ander Letona
Apirilaren 19an, 13 urte.
Zorionak! Ikaskideen par-
tetik.



ARRASATE
Jessica Alonso
Apirilaren 27an, 13 urte.
Zorionak! Ikaskideen par-
tetik.



ARRASATE
Anuska Lasa
Maiatzaren 4an, 13 urte.
Zorionak! Ikaskideak eta
koadrilakoak.



ARRASATE
Oihane Altuna
Apirilaren 26an, 15 urte.
Zorionak! Familiaren par-
tetik.



ARRASATE
Jone Heriz
Maiatzaren 3an, 6 urte.
Ikerren, aitaren eta ama-
ren partetik.



ARRASATE
Ane Lopez
Maiatzaren 2an, 11 urte.
Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Sonia Alonso
Maiatzaren 2an, 8 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
arriba.



ARRASATE
Maialen Martin
Apirilaren 28an, 12 urte.
Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Joseba Iregi
Maiatzaren 2an, 5 urte.
Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Lorena Andres
Maiatzaren 7an, 23 urte.
Zorionak, Koras! Zure lagu-
nen partetik.



ARRASATE
M. Azkarraga-Urizar
Maiatzaren 1ean, lehe-
nengo jaunartzea. Egun
zorionsua izan! Etxeokak.



ARRASATE
Sara Fuentes
Maiatzaren 1ean, lehe-
nengo jaunartzea. Egun
zorionsua izan! Etxeokak.



ARRASATE
Iraitz Arriaran
Apirilaren 26an, 2 urte.
Zorionak! Aita pontekoan
partetik.

Adi!


Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia bueltatu egingo dizugu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Komeni da argazkia urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea.

EZETZASMATU



SERGIO AZKARATE

Non dago argazkian ikusten duzuen ate berezi hori?
Arrastoa: erlijioarekin lotutako lekua da.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Pantene xanpua
300 ml

3,49 € 581 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

SABINA ALTUNArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Sabina!
Galderen erantzun zuzena:
Etxagibel Notarioa kalea.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko futbola 1942tik 1966ra (II)

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...' / J, LETONA

Bigarren atal honetan, 1942-43an gertatu zen bitxikeria bat kontatzen hasiko gara: Luis Arana *Cano*-rekin lotuta dago.

Kontua da Tolosa eta Mondra taldeek Gipuzkoako Kopako finala jokatu behar zutelara, San Juan jaietan. Hala, partidua oso garrantzitsua zela-eta, Mondra taldeko zuzendaritzak erabaki zuen futbol jokalariei ez uztea partidua baino lehen ohiturazko txikitoak edaten. Hala, jokalariek guztiak Arrasateko orfeoiaren kontzertua ikusten joatera behartu zituzten. Azoka plazan izan zen kontzertua. Aurreneko ilarako jarleku guztiak gorde zituzten Mondrako jokariendako. 13:00etan zen kontzertua eta 14:00ak arte-edo lortu zuten jokalariek ardorik ez edatea.

Baina taldeko entrenatzaile Juan Madinabeitia *Manuka*-k susmoa zuen *Cano* ez zela bazkaltzera joango txikito batzuk edan barik. Hala, erabaki zuen kontzertuaren ostean hari jarraitzea, zaintzeko.

Eta entrenatzailearen susmoak bete egin ziren. Izan ere, kontzertutik atera bezain laster, *Cano* taberna batean sartu zen. Madinabeitiak pentsatu zuen txikito baka-berriak ez ziola kalterik egingo. Bai-



'PEQUEÑA HISTORIA DEL FÚTBOL EN MONDRAGON'

Jose Martinez de Ubago izan zen Mondra taldearen aurreneko presidentea; Paco Marteatxe izan zen hurrengoa.

na *Cano* tabernatik atera eta hurrengo tabernara sartu zen. Baita hirugarrenera eta laugarrenera ere. Nahikoa zelakoan, entrenatzailea ere sartu zen laugarren taberna hartan, eta errieta egin zion *Cano*-ri, esanez laugarren txikitoa larregikoa zela. Zera erantzun

1955ean talde berria sortu zen: Arrasate Club de Futbol; talde nagusiaren filiala zen

zion *Cano*-k: "Juanito, zortzi besterik ez dut edan-eta!". Izan ere, *Cano*-k bi txikito edan zituen taberna bakoitzean.

TALDE BERRIA ARRASATEN

1942tik 1966ra bitartean, Arrasaten talde berria sortu zen, Juven-

tud Deportivaren filiala izateko. Arrasate Club de Futbol izena ipini zioten talde hari. 1955eko martxoan zen. Eta bigarren erreional mailan jokatu zuen. Honako hauek osatu zuten taldearen zuzendaritza: presidentea, Valentin Gonzalez Bedia; presidente-ordea, Zezilio Iturroste Arluzea; idazkaria, Inazio Urionabarretxea eta diruzaina, Jose Luis Arregi.

Esan beharra dago sasoi berean Arrasaten beste futbol talde bat ere bazela: UCEA. Union Cerrajerako Aprestuzen Eskolakoak zen. Gaspar Ezkurra zen taldeko presidentea. Zaldibarren jokatzeko zuten, hura zen-eta Union Cerrajeraren zelaia.

BEHERANZKO JOERA

1966ra arte, Arrasateko taldeak nahiko emaitza onak eskuratu zituen txapelketetan. Adibidez, 1961-62 denboraldian hirugarren mailara igotzea lortu zuen. Eta hurrengo denboraldietan ere bide beretik segitu zuen, 1967-68 denboraldira iritsi arte. Izan ere, urte hartan hasi zen futbolaren gain-behera. Baina, hori baino lehen, Arrasateko taldeak berriro ere izena aldatu zuen eta gaur egun duena ipini zioten: Mondragon Futbol Club.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko apirilaren 30a / 106. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Bañera Kirol Elkarteak desagertzeko zorian dago

UBANE MADERA

Bañera Kirol Elkartearen etorkizuna zalantzan dago. Izan ere, elkarteak zuzendari-tzako bi kideek iragarri dute aurten utzi egin behar dutela elkartearen egiten duten lana.

Denboraldia bukatzeaz dagoela eta, Bañera elkarteak zuzendari Josu Bideburu eta Alfonso del Campok jakinarazi dute aurten utzi egingo dutela taldea. "Elkar-teak aurrera egiteko lehenbailehen hartu beharko du norbaitek ardura. Datorren denboraldira-ko entrenatzaileak izendatu, fitxak egin... Hori guztia orain egin beharra dago. Horregatik jakinarazi dugu orain gure erabakia".

ARRAZOIA: NEKEA

Erabaki horren arrazoiaren gainean zera diote: "Nekatuta gauden. Beti hiru lagun bakarrik ibili gara. Gainera, elkarteaz arduratzeaz gain, denetik egin behar izan dugu: burokrasia kontuak, taldea entrenatu (Josuk), partiduren bat jokatu jokalaririk ez zegoelako (Alfonsok)... Eta azken urteotan bi lagun geratu gara guztiaren ardurarekin, Alberto Ibabek taldea utzi zuen-eta". Elkarteak aurrera egin dezan nahi dute, baina, era berean, badakite Bañera desagertzeko arriskuan dagoela. "Hemen inork ez du sartu nahi izan sekula. Hori bai, guk gauzak ikusteko modu jakina dugu, eta askotan jendea ez da gurekin ados egon. Hala, orain gu ez gaudela, akaso orain arte animatu ez den norbait animatuko da. Ea horrela den. Dena dela, beldur handia dugu, Aramaion kirol talde asko desagertu izan direlako: saskibaloikoa, txirrindulariena, pilota justu-justu dabil... Bañerari dagokionez, jendeak konturatu egin beharko luke urte luzez herriarendako ona den zerbait egin dela, eta horrek jarraitu egin behar duela. Hori da garrantzitsua".

HAMAR URTE BAINO GEHIAGO LANEAN

Orain dela 13 urte jaio zen Bañera Kirol Elkarteak, 1991ko martxoaren 6an. Eskolan, futboleko ibiltzen zen mutiko talde bat gidaritzaz barik geratu zen. Josu Bideburuk entrenatu egiten zituen eta Alfonso del Campo kiroldegian



Hamahiru urtean arduratu dira Alfonso del Campo eta Josu Bideburu Bañerarekin.

Bañerako bazkide guztiei zuzenean jakinaraziko diete hartu duten erabakia

zebilan lanean. Alberto Ibabek ere erakutsi zuen mutikoeziko interesa. Hala, hiruren artean haien gidaritzaz hartu, taldea sortu eta gurasoen elkarteak emandako dirulaguntzarekin, Bañerako aurreneko taldea jaio zen. "Herrian zerbait egin nahi zuen jendea zegoela ikusita, haiei aukera eman nahi genien. Hala, ikusita herrian futbola nahiago zutela baina futbol zelairik ez zegoela, kiroldegia aprobetxatu eta hala hasi ginen, talde bakarrarekin, Kopa Txapelketan. Hurrengo urtean, talde berarekin segitu genuen, baina ligan eta kopan. Eta hirugarren urtetik aurrera bi talde izan genituen". Urte luzez senior mailakoekin ibili dira Bañerakoak. Eta haien taldea desegin zenean, eskolako umeekin hasi ziren, batzuetan talde bakarrarekin eta bestetan gehiagorekin.

Elkartearen diru beharrari aurre egiteko zozketak egiten hasi

Espero dute maiatzaren 31 baino lehen norbaitek hartzea taldearen ardura

ziren, eta gero bazkideak egin zituzten. Eta zenbait babesle ere erakarri zituzten. Gaur egun, 30 babesle eta 70 bat bazkide dituzte. Taldeei dagokienez, mutilen talde bat eta nesken beste bat dituzte.

GAUZA ASKOREN FALTA IGARRI

Orokorrean, denetik falta izan zaiela diote Bañerako arduradunek: "Behin baino gehiagotan zortzi lagunekin egin izan dugu taldea; hala, lesioak zeudenean, azterketak, edo mutikoren bat ez zenean etortzen, arazoak izaten genituen partiduetara joateko. Gainera, mutikoak futboleko txarrak izan edo ez, berdina da, sekula ez dugu inor kanpoan utzi". Edozelan ere, askotan gazteen eta, bereziki, haien gurasoen konpromiso falta igarri dute Bañerakoak: "Azken urteotan, batez ere, eskolakoekin kirol arazo handiak izan ditugu. Umezaintza zerbaitzua zirudien honek".

Manex Agirre hirugarren, bertso txapelketan

UBANE MADERA

Asier Otamendi gasteiztarrak jantzi du txapela Arabako aurtengo bertsolari txapelketan. Oihane Perea eta bera pasa ziren bigarren fasera. Manex Agirrerri dagokionez, poto bat egin zuen eta bukatze-ara batek ihes egin zion. Horrek puntuak kendu zizkion, baina bestela saio polita egin zuen.

Honela geratu zen sailkapena joan den domekako saioaren ondoren: Asier Otamendi (483,5 puntu), Oihane Perea (457 puntu), Manex Agirre (297 puntu), Juan Mari Juaristi (289 puntu), Iñaki Viñaspre (267,5 puntu) eta Ruben Sanchez (255 puntu). Iazko txapelkun Zigor Enbeitak eta Arabako Bertsozale Elkarteak lehendakariak jantzi zion txapela Asier Otamendiri.

Arabako Bertsozale Elkartearen arabera, "ez zen izan bertsolari-ekin egin nahi zuten adinako saioa, baina hala ere, entzuleak gustura atera ziren Printzipal

Oihane Perea:
Maitasuna hemen bazenun baina egin duzu gauza txarrik zure andrea etxean preso utzi duzu ta bakarrik baina saskira begira nago txiki ez egin negarrik zu ikusita ez dudalako haserretzeko indarrik

antzokitik". Horren gainean ere berba egin digu Manex Agirrek: "Uste baino saio eskasagoa egin dugu. Bertsolari guztiak ibili gara gure mailatik behera. Gogoan bagenuen, baina... Penatuta ateraginen, egindako saioagatik. Gainera, kanpoko jende asko etorri zen gure bertsoak entzuteko: Bizkaitik, Nafarroatik... Datorren urtean saio hobea egingo dugu, seguru".

POTO EGIN ETA KANPORA

Edozelan ere, Manex Agirrek gaineratu digu orokorrean gustura geratu dela egindako lanarekin. Kontatu digu poto egin zuela eta ondorioz, bertso hura oso txarto atera zitzaioela, ia ez ziotela punturik eman: "Badakizu, bertso bat gutxiago egiten baduzu, kalera".

Bertsozale elkarteak dio, bereziki, zortziko nagusian ibili zela ondo Manex Agirre. Oihane Perea-ekin tokatu zitzaion. Senar-emazte zirela eta etxeko atarian ume bat utzi ziotela, *Ezin dut gehiago. Zurea ere bada ohar-arekin. Hona hemen bertsoak:*

Manex Agirre:
Bizitza dena pasatu dugu haurtxo baten afanean eta etsi ere egin genuen zuk eta nik azkenean baina orain ezin gara jarri hau ez hartzeko planean barruan zerbait puskatzen baitzait begiratzen dudanean



Manex Agirrek eta gainerako bertsolari-ekin uste baino saio eskasagoa egin zuten.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

DOMEKAKO ZINEMA

Oraingo honetan *X-Men II* zientzia-fikziozko filma emango dute.

BERTSO-SAIOA

Abetxukon II. Bertso Txapelketa jokatu dute bihar, zapatua. Honako bertsolariak jardungo dute —tartean bi aramaiotar ere badira—: Jokin Labaien, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre, Irati Anda, Amaia Altube eta Iñaki Viñasprek. Oihane Perea ibiliko da gaitzartzaile.

OSOKO BILKURA

San Prudentzio izan dela eta, martitzenean egin zuen osoko bilkura udalbatzarrik. Landu beharreko gaien artean, besteak beste, parkeetan konponketak eta egiteko dirulaguntzak eskatzea aztertu zuten, eta baita Osakidetzari ambulatorioa konpontzeko dirulaguntza eskatzea ere. Horrez gainera, besteak beste, eguneko zentrora joateko garraioarekin dauden arazoak gainera ere berba egin zuten zinegotziek. Gai hori konpontzeko zer neurri hartu erabakitzea zen helburua.



AITOR LIZARRALDE

Elizan bertan egin zuten kontzertua omenaldian parte hartu zuten abesbatzek.

Bizente Goikoetxearen doinuak bizirik domekan

UBANE MADERA

Herritar dezentek bat egin zuen domekan Bizente Goikoetxea musikariaren omeneko ekitaldian. Besteak beste, meza berezia esan zuen Arabako gotzainak San Martin parrokiari. Eta Goikoetxearen omeneko plaka ipini zuten elizpean, musikari erlijiosoaren argazki eta guzti.

Herritarrekin batera, Arabako Foru Aldundiko eta Aramaioko Udaleko ordezkariak ere parte

hartu zuen Bizente Goikoetxearen urteurreneko ekitaldian.

Baina, jakina, protagonismoa handiena abesbatzek izan zuten. Mezaren ostean egin zuten kontzertua Bizente Goikoetxea eta Araba abesbatzek, Sabin Salaberriaren organo doinuek lagunduta. Valladolideko abesbatzak ere parte hartu behar zuen ekitaldian, baina, ezbehar latz baten ondorioz, ez zen Aramaiora etorri.

Kontuak kontu, domekan gogora ekarri zuten Bizente Goikoetxea musikari erlijioso eta haren lan garrantzitsua.

Aurten ez da izango Sagardogileen Egundik

UBANE MADERA

Joan den urtean ia ez zela sagarrik egon-eta, aurten ez dute Sagardogileen Egundik egingo. Hala jakinarazi digu Txirritola Euskara Elkarteak. Edozelan ere, aurrera begira, egun hori ospatzen jarraitzeko asmoa dutela gaineratu du elkarteak. Hala, datorren urterako egin dute hitzordua.

Eguaztenean, hilak 28, Arabako zaindari San Prudentzioren eguna izan zen. Azken urteotan moduan, data hori kontuan hartu eta Txirritola Euskara Elkarteak aurtengo Sagardogileen Eguna maiatzaren 8an egitea pentsatuta zuten. Orain, aldiz, jakinarazi digute aurten ezin izango dutela Sagardogileen Egundik ospatu.

SAGARDOA EGITEA DA HELBURUA

Txirritola elkarteak Mikel Arantzabalek argitu digunez, joan den urtea oso txarra izan zen sagarrendako, egin zuen sikatearen ondorioz. Hala, Aramaion hiru baserriak bakarrik egin zuten

sagardoa. Egoera hori dela eta, Txirritolakoek pentsatu zuten kanpotik ekartzea Sagardogileen Egunerako sagardoa. Baina gero atzera bota zuten erabakia: "Ospakizun horren helburua da herritarrek sagardoa egiten jarraitzea; hortaz, sagardoa kanpotik ekarri gero ez litzateke helburu hori beteko. Hortaz, erabaki genuen ez egitea Sagardogileen Egundik. Orain, gure asmoa da herritarrek informatzea. Izan ere, aramaiotarrek oso ondo hartu izan dute ospakizun hori".

HITZORDUA, DATORREN URTEAN

Edozelan ere, datorren urteari begira Sagardogileen Eguna antolatzen segitzeko asmo sendoa du Txirritola Euskara Elkarteak. "Baserriak guztiakin berbetan izan gara, banan-banan; eurekin harreman zuzena dugu. Hala, dagoeneko datorren urterako hitzordua egin dugu eurekin, Sagardogileen Eguna ospatzeko. Eta, horren harira, Txirritola elkartearen izenean baserriarrei eskerrak ematea gurako nuke, oso harreman ona dugu-eta haiekin".

Herritarren Zerrenda osatzeko sinadura bilketa

UBANE MADERA

Gainerako herrietan moduan, Aramaion ere sinadurak batuko dituzte datozen egunotan. Helburua da Europako hauteskundeetan parte hartzeko taldea osatzea. Herritarren Zerrenda (HZ) izena ipini diote taldeari. Horren alde sinatu nahi duenak maiatzaren 8ra arteko epea dauka.

Europako parlamenturako hauteskundeak izango dira datorren ekainaren 13an. Horrekin lotuta, oraingo astean, udaletxepean ikusgai izan da hauteskunde horietan bozkatu dezaketen herritarren errolda, akatsik balego haiek zuzentzeko.

Orain, berriz, hauteskunde horietan parte hartzeko zerrenda osatu nahi dute zenbaitek. Baina, hori lortzeko 40.000 sinadura batu behar dituzte, Euskal Herrian.

Hala, ia herri guztietan dago zerrenda horren alde sinatzeko

aukera. Aramaion, martitzenean eraman zituzten sinatu beharreko paperak udaletxera, eta atzo, eguna zabaldu zuten sinadurak emateko epea. hAMAlau taldeak jakinarazi digunez, datorren maiatzaren 8ra arteko epea izango da horretarako. Orduetgia honako hau da: 08:00etatik 15:30era, egunero, jaiegunak izan ezik. Maiatzaren 5ean, eguaztena, 17:30ak arte. Udaletxeko aurreneko solairura joan beharra dago. Eta sinatzeko, nortasun agiria eramatea besterik ez da behar.

HAMALAUERKIN MODUAN

Aramaioko hAMAlau taldeak esan digu lehenago ere AUB eta hAMAlau taldeak sortzeko egin zuten prozesu bera dela oraingoa. Zera ere gaineratu dute: "Euskal Herriak bertan egon behar du nazio bezala, eta horretarako osatuko dugu Herritarren Zerrenda". Talde horren leloa da *Euskal Herria libre mugarik gabe European*.

LABUR

Aurtengo udalekueetan jarduteko begiraleak behar ditu Aramaioko Udalak

Udalak jakinarazi duenez, datorren uztailean antolatuko dituen udalekueetarako begiraleak behar ditu. Begirale izateko derri-gorrezkoa izango da 17 urtetik gora izatea. Bestalde, honako ezau-garri hauek baloratuko dituzte: begirale titulua edo maisu-maistra ikasketak izatea, euskarazko EGA titulua izatea, uimeekin esperientzia izatea eta Aramaiokoa izatea. Interesa duenak datorren maiatzaren 21a baino lehen eman beharko du izena, udalekueetan bertan edo ludotekan.

Orixol Mendi Elkarteak antolatutako irteera izango da maiatzaren 15ean eta 16an

Orixolek Hondarribira txangoa antolatu du maiatzaren 15erako eta 16rako. Honako egitaraua izango dute: 09:00etan, autobus geltokitik atera; 10:30ean, aterpetxean motxilak utzi; 11:00etan, Jaizkibelera igo eta inguruan bazkaldu. Gero afaldu eta lo, aterpetxean. Hurrengo egunean, gosalduta ostean, Abadiako natur erreserbara ibilaldia egingo dute, eta gero, aterpetxean bazkalduko dute. 19:00etan itzuliko dira herrira. Txangora joateko maiatzaren 3a baino lehen eman behar da izena, eskolan, liburutegian edo kiroldegian.

Itur Zuri Emakume Elkarteak Iparraldera joateko bidaia antolatu du

Emakumeei zuzendutako bidaia da Itur Zurik antolatu duena. Datorren maiatzaren 29an eta 30ean joango dira Iparraldera. Asmoa da honako lekuak ikustea: Hendaia, Donibane Lohizune, Biarritz, Baiona eta Angelu. Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 16a da. Betiko lekueetan izango dira izena emateko zerrendak: liburutegian, zenbait dendatan, tabernetan...

Pentsiodunendako bidaietarako izena emateko epea bukatzeaz dago

Penintsulara, Balearretara, Kanarietara, Portugalera, kultur zirkuituetara joateko edo natur turismoa egiteko aukera dute pentsiodunek. Eskaintza hori 65 urtetik gorakoendako da, baina 60 urte beteta duenak ere parte har dezake, betiere, pentsioen sistema publikoan badago. Bidaietako bat eskatzeko epea maiatzaren 14an bukatuko da, eskabide berriak egin behar dituztenendako.


ERRETRATUZAHARRA

Ardantza
alkate, orain
dela 25 urte

Udal kontuak izango ditugu berbagai argazki zaharren tarte honetan. Kontua da joan den astean Jose Antonio Ardantza Arrasateko alkate izendatu zuteneko 25. urteurrena bete zela, eta gure irakurle fin batek osoko bilkura haren gainean gordeta zeukan dokumentua utzi digula.

Hala, dokumentu horrek kontatzen du oso batzar luzea izan zela hura: ia bi ordu eta erdi. 1979ko apirilaren 19a zen. Lehen esandako moduan, Jose Antonio Ardantza aukeratu zuten alkate, EAJren aldeko 11 botoekin. HBko Gregorio Etxabe bigarren lekuan geratu zen, lau botorekin. Hiru boto eskuratu zituen PSOEko Jose Luis Lanak eta Euskadiko Ezkerrako Mikel Larunbek, bi.

Argazkian agertzen direnak honako hauek dira, eskumatik hasita: Jose Luis Lana (PSOE), M^a Carmen Goñi (EAJ), Jose Luis Arroitia (EAJ), Jose Antonio Auzmendi (EAJ), Arantza Akizu (EAJ), Juan M^a Muruamendiaraz (EAJ), Jose Antonio Goitia (EAJ), Mikel Larunbe



(EE), bizarduna Jose Inazio Iartza da (EMK-OIC: Ezkerreko Mugimendu Komunista), gero Gregorio Etxabe dator (HB), Izaskun Arriola (HB), makurtuta dagoena Jose M^a Zubiaga da (EE) eta haren ondokoa Jose Kruz Murgia (EAJ). Eserita daudenen artean, zuriduna Eukeni Olabarrieta da (HB)

eta bestea Fernando Cristobal (EAJ). Eta tente dagoena da Ardantza.

Alkateak egun hartan esandako diskurtsoa osorik agertzen da gure irakurlearen dokumentuan. Gure espazioa txikiagia da horretarako; baina, besterik ez bada ere, diskurtsoaren bukaera ekarri dugu: "Nire kudea-


ketarengatik lortzea gustatuko litzaidakeen sari bakarra zera entzutea litzateke: betebeharrak betetzen jakin izan du".

Argazkia: Arrasateko Udala
Informazioa: Arrasateko Udala eta Bixente Azkarate.
Urtea: 1979.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Takoloko
bidegurutzea,
biribilune

Takoloko bidegurutzea hobetzeko proiektua 1995ean bidali zion Foru Aldundiak Udalarari. Bidegurutze hori ez zegoen batere ondo; arriskutsua zen oso, eta auto istripu baten baino gehiagoren testigu izan dira Takolo baserriko bizilagunak. Takoloko eta Bedoñako bidegurutzeak batzeko biribilunea egitea zen asmoa, eta 1998an hasi zituzten lanok.



≈ 1995 Biribilunea eta Bedoñarako zubia egitea zen Udalaren asmoa; baina lehenengo proiektuan ez dator Olandixoko tunelaren berri.



2004 Egund, Takoloko biribilunean zirkulazio handia egoten da. Olandixoko proiektua, berriz, oraingoz proiektua baino ez da.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita
ESKORIATZA

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

SAN ANDRESKO JAIK

Apirilak 30
Maiatzak 1 eta 2

2004

MESON MANOLO

Eguneko menua
Kartako menua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

Jaietan giro paregabea geurean!

Bañez doktorea 3. ARRASATE. Tel.: 943 79 22 40

CORAZON DE ENCINA EXTREMADURAKO ZENTRO KULTURALA

Astelehenetik ostiralera eguneko mezua, plater konbinatuak, arrazioak, alde zurretik eskatutako oilasko errea eta ogitartekoak.

Espezialitateak: olagarroa, txerri-belarriak eta txerri-masaila.

Guztiontzako zabalik!!

Araba etorbidea 3 Tel.: 943 79 11 75.

Jabier Gozokidenda

Bañez doktorea, 6
Tel.: 943 79 49 82

T
A
B
E
R
N
A



Bñez D.K.,6
(San Andres auzoa)
943 79 74 12

Imagen

Ile-apaindegi mistoa

Solariuma
manikura
makillajea

Bañez Doktorea 10
ARRASATE
Tel 943 79 29 18

NUEVO

Taberna

Mota
guztietako
pintxoak

Bñez D.K., 15
(San Andres auzoa)
943 79 38 19

Muruamendiaraz

GOZOTEGIA

Leintzibar, 4
Tel.: 943 79 23 19

AZPILIKUETA HARATEGIA - URDAITEGIA



Bañez doktorea, 10
Tel.: 943 79 28 21

kurruxko

Okindegia
Urdaitegia
Gozotegia
Bakailaoa

Bañez doktorea, 12
Tel.: 943 79 22 57

TOKI EDER KAFE TABERNA

pintxoak
aukeran

musika ona

Bñez D.K.,11
(San Andres auzoa)
943 79 31 45


Lizarralde

kirolak

Bizikleten salmenta
eta konponketa

Oñati
Olakua, 16.
Tel.: 943 78 29 86

Arrasate
Foruen plaza, 1-2
Tel.: 943 79 91 47



Zangitu MARGOAK ALFONBRAK

Araba Etorbidea, 3
Eskatu pabeloia
Tel. 943 79 11 71

Perez

Fruituak eta Janariak



Kontserbetan espezializatua
Maisu Guridi 3
Tel: 943 71 29 99

AVENIDA



Bñez D.K.,11
(San Andres auzoa)
943 79 20 21

OINETAKO KONPONKETAK

RAOS

Mota guztietako
giltzen kopiak

Bañez Doktorea, 6 behe
Tel.: 943 79 74 87
San Andres

Aramaio okindegia

Croissante eta opil
egin berriak.

Jai zoriontsuak
eta on egin!

Maisu Guridi, 3
Tel.: 943 79 06 46

GIZON, EMAKUME ETA
HAURRENTZAKO JANTZIDENDA

Bañez doktorea, 1
Tel.: 943 79 63 85

SAN ANDRESKO JAIAK

Apirilak 30
Maiatzak 1 eta 2

2004

LENNON

TABERNA

*Geurean
giro
onena!*

Bañez doktorea 8
ARRASATE



herri eskola

Jai zorientsuak
opa dizkizuegu!
Ondo pasatu jaietan!!

Alfonso VIII, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 69 • Faxa: 943 79 00 44




Zentro interaktiboa
Eroski merkataritza
gunean

Araba Etorbidea, 4
Tel.: 943 79 19 88
Faxa: 943 77 15 76
emaila: ekos@ekos.org

ZALEKI

Dr. Bañez kalea 12
ARRASATE

HARATEGIA
URDAITEGIA
OILASKOAK



SAN ANDRES

Zatoz beritasunez
beteriko taberna ikustera!



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Zutikako eta etzandako
solariuma

San Andres auzoa Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE



IRIZTU TABERNA

Maiatzak 1ean, mus txapelketa.
Aurrez izena eman!

ITXASO KAFETEGIA

*Ondo
pasa
jaietan*

Araba etorbidea 14
Tel.: 943 79 57 10.

OIHAL SAN ANDRES

Etxeko ehunkiak
Zure etxea barrutik
janzten espezialistak

Araba etorbidea 18 behea
Tel.: 943 79 76 11.



SALOGA
taberna

Bañez Doktorea 10 - Tel.: 943 79 20 33
ARRASATE

IZAGIRRE

HARATEGIA-VRDAITEGIA



Kurtze Txiki plaza 2
Tel.: 943 79 59 86

AKADEMIA BASTIDA

LANBIDE HEZIKETARAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1
Arrasate
Tel.: 943 79 35 33
943 79 32 16
Faxa: 943 79 06 28
emaila: bastida@bastida.es



Txinatar jatetxea
**DRAGON
ORIENTAL**



Etxera eramaten
dizugu janaria

- Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik
- Gutxieneko eskaria 12 euro
- 1,8 euro etxera eramateagatik

- 30 euro baino gehiagoko eskarrietan, garagardo txinatarra opari
- 40 euro baino gehiagoko eskarrietan, botila bi txinatar likore edo garagardo txinatar bi opari

• 20 minutuan etxean
• Arrasaten bakarrik
943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE

RUIZ



- Osagarriak
- Denentzako opariak

**gizon
emakume
gazte**

Bañez doktorea, 4
Tel.: 943 79 19 94

BITTORI ERRETEGIA

*Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak
eta txuletak*

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 55 82